

Jagon bilduma

Argitaratutako lanak / Títulos publicados:

1. *Bertsolari txapelketa 1982*. 1983
2. ZZ.EE./AA.VV.
Iparragirre. 1987
3. *Euskararen sustatzea*.
Euskaltzaindiaren adierazpenak (1976-2006), 2006
4. MIQUEL GROS i LLADÓS
Recuperación del Euskera en Navarra. 2007
5. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
Sustapen Batzordea
Hizkuntza-zuzenbidea. Testu-bilduma euskaraz. 2007
6. EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA/
EUSKALTZAINDIA
Zenbait orientabide erregistroen trataeraz. 2008
7. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
Corpus Batzordea
Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa. 2008

Hizkuntzaren erabileran eragina duten gizartearen alde guztiak biltzen ditu JAGON Sailak, bai eta hiztunek bizi dituzten kultura arauak, itzaropenak eta testuingurua ere. Euskaltzaindiaren Jagon Saileko *JAGON bildumak* euskararen inguruko hainbat ikerketa eta saiakera hartzen ditu, hizkuntzaren erabilera praktikoa aztertu, eta euskara sustatzeko eta babesteko.



Euskaltzaindia
Real academia de la lengua vasca
Académie de la langue basque



Testu-antolatzaileak Erabilera estrategikoa



EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
C o r p u s B a t z o r d e a

Testu-antolatzaileak Erabilera estrategikoa



EUSKALTZAINDIA

Euskal gramatikaz, bi uste oker eta gaizto daude gurean zabaldua: batetik, arautzen duena baino gehiago arautzen duela eta, bestetik, zenbait hizkuntza-baliabideren erabileran nahikoa dela arau gramatikalak betetzea. Hemen, estrategiak ditugu gai nagusi. Eta *estrategia* esatean, *erabakia* diogu. Hain zuzen, erabakiak hartzera bultzatu nahi zaitugu; erabakiak hartzeko gaitasuna lantzeraz; hitz batean, zeure buruaren jabe izatera euskararen erabileran ere.

Testu-antolatzaileak
ERABILERA ESTRATEGIKOA

JAGON SAILA
Corpus Batzordea

BURUA
Andres Urrutia

IDAZKARIA
Paskual Rekalde

KIDEAK
Dionisio Amundarain
Joseba Butron
Pello Esnal
Igone Etxebarria
Juan Luis Goikoetxea
Andres Iñigo
Patxi Iñigo
Xabier Mendiguren
Joxe Ramon Zubimendi

EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
Corpus Batzordea

Testu-antolatzaileak

ERABILERA ESTRATEGIKOA



EUSKALTZAINDIA

BILBO
2008

Euskaltzaindia. Corpus batzordea

Testu-antolatzaileak : Erabilera estrategikoa / Euskaltzaindia, Jagon Saila, Corpus Batzordea ; testu hauen koordinazioa eta argitaratzeko egokitzapena Pello Esnal Ormaetxea batzordekideak egin du. — Bilbo : Euskaltzaindia, 2008

104 or. ; 24 cm. — (Jagon bilduma ; 7)

L.G. BI-2268-08

ISBN 978-84-95438-43-0

I. Esnal, Pello (1950-) II. Jagon (Euskaltzaindia)

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiazea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Testu hauen koordinazioa eta argitaratzeko egokitzapena Pello Esnal Ormaetxea batzordekideak egin du.

Diseinua: Ikeder, S.L.
Aurreinprimatzea: Ikur, S.A.
Inprimatzea: Baster, S.L.L.

ISBN: 978-84-95438-43-0
Lege-gordailua: BI-2268-08

AURKEZPENA

Oraingoa baino, aspaldikoa du Pello Esnalek kezka, hitzak hizkuntzaren eta hizkeraren bidez nola bilbatzen diren erakusteko. Badira horretan tresna bereziak, hitzen letretatik harago doazenak, testuaren barruan estekadura esanguratsuak ondu arte: *testu-antolatzaileak*. Halaxe izendatu ditu. Izendatu ez ezik, eginkizun egokia ere areagotu die; euren erabilera estrategikoa azpimarratu baitu, haste-hastetik, liburu honen tituluan. Eta, azken batean, horiek baliatu baititu, estrategien mundua erakutsi eta mundu horretan buru-belarri saia gaitezen gonbidatuz.

Langintzarako baliabide eta bilgunea Euskaltzaindiaren Jagon saileko *Corpus* batzordean izan du Pello Esnalek. Ari ere, han aritu izan da, pausoz pauso, berak materialak ekarri ahala, beste batzordekideon oharrak eta iradokizunak jasoz eta hausnartuz. Emaitza, bistan da, guztiontzat aberasgarri eta ongarri izan da; aparteko eitea eta tenorea ekarri baitio lanari batzordekideen parte-hartzeak.

Esan daiteke, beraz, liburua eskuan dugula, Pello Esnalek argitalpen honen bidez erakutsi eta irakatsi dizkigula testu-antolatzaileen isilpekorik behinenak, halako molde erraz eta manera arinez; alegia, deus ez, ezer ez balitz bezalaxe. Eta eskuragarri eta ulergarri egin digula, azken batean, berez trebezia eta esku fina eskatzen duen hori, lainotasun intelektualarekin apainduta eta goi-mailako eskakizunei muzin egin gabe.

Azpimarragarria da liburu honetan erabilitako metodologia. Arestian esandakoa, hots, batzordekideon arteko elkarrekikotasuna, izan da zutabe eta oinarri, guztiok ulertu dugulako adostasun zabal batean jokatu beharra zegoela, euskarari proposamen eta irtenbide bateratuak eman nahian. Batzordekideak lurraldez zein euskalkiz desberdinak izateak ez du ostendu euskararentzako emaitza ahaltsua, hain zuzen ere, egungo gizartearen premiek hizkuntza moderno bati galdatzen diotenak.

Edukirik ederrena, hala ere, alferrik legoke artez adierazten ez bada, ulertzeko modukoa ez bada. Izan ere, pedagogiaren arrangura izan da osterantzeko norabidea lan honetan. Nabarmena, zer esanik ez, egilearen kasuan. Ez txikiagoa, argi dago, Joseba Butron batzordekideak prestatuturiko maketazioan.

Mamia eta azala batzen dira, hainbatez, liburu honetan. Xedea, esan beharrik ez dago, euskarari eta euskaldunei betidanik izan dituzten baliabide linguistikoak eskaintzea da, artezki bilduak eta mailakatuak. Ez dago hemen taxonomia singlea, ezpada tradizioko eta eguneroko euskal testu hautatueta gorpuzturiko esamolde biribilak.

Hezkuntzan zein administrazioan, komunikabideetan nahiz enpresetan, literaturan edota justizian, aisialdia ere bazter utzi gabe, euskarak tresna malgua behar du izan. Horretan da lagungarri liburu hau, hain juxtu ere, hori moldatzen eta zorrotzen, betidanik ezagutzen ditugun horiek non eta noiz eta nola erabili behar diren gogorazteko, esanaren bat-batekoak edo testuaren malgutasunak hizkeraren edo hizkuntzaren zabarkeria ekar ez dezan.

Halakoetan, komunikazioaren estrategia behar du euskarak, gramatika eta hiztegia bezainbeste, motz eta urri gelditu nahi ez badu. Horra doa Euskaltzaindia ere, jakinik hizkuntza baten normatibizazio- eta normalizazio-lana hutsaren hurrengoa dela, hizkuntza hori bizirik ez badago testu idatzi eta ahozkoetan.

Euskaltzaindiak, euskararen akademiak, ihes eta oies baino, borborrean eta jendaurrean nahi du euskara, eta bidegintza horretarako norabideak liburu honetan ikusten ditu, zuzen bilduak eta apailatuak. Betoz halakoak. Artean, zorionak Pello Esnali, ibilbide honetan lemazain tinkoa izan dugulako; zorionak, orobat, bidaide izan ditudan Euskaltzaindiaren Jagon Saileko *Corpus* batzordekideei; eta agiantzarik gozoenak, geroenean ere lan honek segida izango duelakoan.

Andres Urrutia
Jagon Saila
Corpus batzordeburua

ATARIKOA

Ibilaldi luzea egiten ari da euskara, bai hizkuntza-normalizazioan, bai gizarte-normalizazioan ere. Euskara batuan gauzatzen ari da lehenengoa, eta euskara batu hori hainbat gizarte-esparrutan ibiliz doa hezurmamitzen bigarrena.

Euskaltzaindiak elkarrekin estu lotuta ikusten ditu bi normalizazioak, elkarren eragile eta baldintzatzaile. Eta bietan da zuzeneko partaide: batean, hizkuntza-arauak, gomendioak-eta emanez; bestean, hainbat erakunderekin lankidetzan arituz.

Izan ere, ezer gutxi balioko luke Euskaltzaindiaren lanak, baldin eta euskal gizartearen baitan gauzatuko ez balitz, gizarte-eragileekiko lankidetzan. Are gehiago: gizarteari entzunez atzemango ditu beharrak eta bideratuko du bere egitekoa.

Hain zuzen, euskal gizarteak sortu zuen duela laurogeita hamar urte, euskara zaindu, bultzatu eta indar zezan. Xede horiek gidari, zintzo ahalegindu da Euskaltzaindia bere egitekoa betetzen, askotan egoera estu eta gogorretan. Ahalegin horren baitan, gizartearen beharrei erantzunez eratu zuen, 1968an, Arantzazuko batzarra, Euskaltzaindia bera sortu zen berrogeita hamargarren urtemugan, euskararen batasunari bultzada erabakigarria emateko asmotan. Orduz geroztik, etengabe ari da euskara batua sustatzen, bideratzen eta gizarteratzen.

Alabaina, euskararen batasunak ez ezik, Euskaltzaindia gero eta biziago kezkatzen du euskararen kalitateak. Kezka hori bera sumatzen du euskal gizartearen zenbait esparrutan. Gaur ez da nahikoa euskara gramatikala eta zuzena erabiltzea. Komunikatzeko egokia ere izan behar du darabilgun euskarak. Hain zuzen, hizkuntzak komunikatzeko tresna izan behar duela ohartu eta zenbaitetan ez dela hala gertatzen konturatzeak sortu eta hedatu du gugan kezka hori.

Horren jakitun izanik, Euskaltzaindiak, Jagon sailaren bidez, jardunaldi bereziak antolatu ditu azken urte hauetan: Jagon Jardunaldiak.

I. Jagon Jardunaldiak Bilbon egin ziren, 1994ko otsailaren 24tik 26ra, Euskaltzaindiaren egoitzan, erakunde honen sorreraren 75. urtemuga ospatuz eta “hizkuntzaren erabilera zuzena” langai zela.

Arreta handia ipini zuen Euskaltzaindiak jardunaldien eraketan, urtemuga berezia ospatzen zuelako eta gaiagatik beragatik. Horren adierazle dira, esaterako, jardunaldietan parte hartu zuten erakundeak eta hizlariak: batetik, hizkuntza-politikan ziharduten arduradunak eta adituak (bai Euskal Herrikoak, bai Galizia, Katalunia, Valentzia eta Balear Uharteetakoak) eta, bestetik, Euskal Herriko administrazioetan, hezkuntzan eta komunikabideetan zihardutenak.

Garrantzizko jardunaldiak izan ziren. Aukera ezin hobea eskaini baitzuten euskararen erabilera aztertzeko, batik bat erabilera horren nolakoa –zuzentasuna eta egokitasuna– kezka-iturri zela. Izan ere, jardunaldien izenburuko “zuzen” haren azpian hiru kontzeptu ageri dira, behin eta berriro, jardunaldietako hitzaldietan: “zuzentasuna” bera, “egokitasuna” eta, azken batean, “kalitatea” (*EUSKERA*, 1994).

Garrantzizkoak izan ziren, era berean, Jagon sailaren lana ere bideratu zutelako. Hala ikusten da ondorengo Jagon Jardunaldien aztergaietan.

II. Jagon Jardunaldiak Tolosan egin ziren, 1996ko abenduaren 17tik 19ra, batez ere hiru gai ardatz hartuta: euskalkiak eta euskara batua, euskalgintzaren araugintza eta euskararen kalitatea (*EUSKERA*, 1996).

Donezteben izan ziren III. Jardunaldiak, 1998ko irailaren 25ean, eta Euskaltzaindiak emandako azken gramatika-arauak landu ziren.

IV. Jardunaldiak, azkenik, 1999koak ditugu, Aramaion egindakoak. Berriro ere zuzentasuna lantzeko aukera eman zuten eta, aldi berean, Jagon saileko batzorde sortu berri bat aurkezteko: Sustapen batzordea. Ildo horretatik, berariazko arreta eskaini zioten legegintzari; azken batean, legeek bideratzen baitute hizkuntza baten erabilera zenbait esparrutan (*EUSKERA*, 1999).

Orain, ildo beretik, *Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa* izeneko lan hau plazaratzen du Euskaltzaindiaren Jagon sailak, V. Jardunaldien baitan.

Lan honetan, euskararen egokitasuna dugu langai, galdera bat gidari: nola ekoiztu euskara egokia? Eta erantzuten ere saiatu gara: besteak beste, testu-antolatzaileak era estrategikoan erabiliz.

Hemen, jakintzat ematen dugu gramatika. Gramatika ezinbestekotzat joz, estrategien munduan kokatu dugu geure burua. Gramatikaren arauak derrigorean bete behar dira. Hizkuntza baten erabileran, ordea, dena ez da gramatika betetzea; nahitaezkoa da gramatika betetzea, baina ez nahikoa.

Gramatikaz haratago, estrategien mundua azaltzen zaigu. “Askatasunaren mundua”, esango du norbaitek. Agian, egokiagoa dugu “autonomiaren mundua” esatea; hau da, askatasuna eta erantzukizuna uztartzen direneko mundua, lan honetan behin eta berriz aipatzen den bezala. Izan ere, ezinbestekoa

iruditzen zaigu, askatasunez ez ezik, erantzukizunez ere jokatzea euskararen erabileran. Askatasunez, arau-gehiegikeriaren mende jausi gabe. Erantzukizunez, euskararen historia, egoera eta testuingurua kontuan hartuz.

Horixe azpimarratu nahi dugu lehenik: estrategiak direla lan honen gai nagusia. Eta *estrategia* esatean, *erabakia* esan nahi dugu. Hain zuzen, erabakiak hartzera bultzatu nahi dugu euskal hiztuna, behin gramatika-arauak kontuan hartu ondoren; gaitasun estrategikoa —erabakiak hartzeko gaitasuna— lantze-
ra; hitz batean, bere buruaren jabe izatera euskararen erabileran ere.

Dena den, erabakiak hartuz ikasten da erabakiak hartzen: zerbaiten erabileran erabakiak hartuz. Hala, testu-antolatzaileak jo ditugu begiz lan honetan. Eta ahalegina ere egin dugu testu-antolatzaileak zehazten, sailkatzen eta ahalik osoen azaltzen. Hala ere, asko utzi dugu eginkizun. Besteak beste, horiek ez direlako lan honen gai nagusia, estrategiak baizik; edo, zehatzago esanda, testu-antolatzaileen erabilera estrategikoa.

Bigarren gai bat ere azpimarratu nahi dugu sarrera honetan: zein testuingurutan kokatzen dugun lana. Testuinguru hori azaldu nahi izan dugu lehen kapituluan, “Euskal testugintza, gaur” izenburupean, maisu hartuta geure bi aitzindari eta bide-urratzaile: Luis Villasante eta Koldo Mitxelena. Nekez aurkituko ditugu maisu hobeak. Horien eskutik azaldu nahi izan dugu euskararen azken ehun urteko bilakaera, bilakaera horretan kokatzeko geure lan hau eta, aldi berean, euskaltzalea gonbidatuz bilakaera horren baitan koka dadin.

Ibilaldi luzea geratzen zaigu oraindik euskararen normalizazio bikoitzean. Baliabide eta euskara-erabiltzaile guztion beharra izango da, aurrera egin nahi badugu. Baina, baliabide guztien artean, ezinbestekoa izango dugu geure gaitasun estrategikoa lantzea eta baliatzea, geure erabakimena areagotzea. Horretarako laguntza izan nahiko luke lan honek.

Asmatuko ahal genuen hein batean! Asmatuko ahal dugu geroan ere!

Pello Esnal

Atariko hau oso motz eta kamuts geratuko litzateke, baldin eta esker ona azalduko ez banie batzordekideei. Zenbat ohar, iradokizun, argibide, adibide eta zuzenketa, bilera joan eta bilera etorri! Mila esker guztioi. Bihotzez.

OHARRAK

Bi atal nagusi ditu, irakurle, eskuetan duzun lan honek. Teorikoa da lehenengo, eta bi lehen kapituluek osatzen dute. Horietan saiatu gara geure planteamendua azaltzen eta bigarren atalekoaren oinarriak ipintzen. Beste bi kapituluek osatzen dute bigarren atala, eta praktikoa da: adibideak ardatz hartuta osatua. Adibide horiek baliatuz azaldu nahi dugu nola erabil ditzakegun testu-antolatzaileak euskal testu egokiagoak sortzeko.

Elkarren osagarri eta argigarri dira bi atalak: teoriak argitzen du praktikaren zer-nolakoa eta nondik norakoa; eta praktikak eramango gaitu, bideak urratu eta zabalduz, praktika bera hobeto ulertzera. Eginez egiten baita bidea.

Horiek horrela, batek baino gehiagok joko duzue zuzenean bigarren atalera, adibideak-eta aztertzeraz eta lantzeraz, geroko utzita planteamenduak eta oinarriak. Batekoz bestera jokatu duzue beste batzuek: lehenik, planteamenduaz eta oinarriez ondo jabetuz; ondoren, adibideak-eta baliatuz. Gure ustez —eta hau da lehen oharra—, biak dira aukera egokiak. Azken batean, teoriaren eta praktikaren arteko etengabeko harremanetan ari gara denok geure bizitzako bideak urratzen eta ibiltzen.

Bigarren oharra, adibideei eta handik eta hemendik hartutako pasarteei dagokie. Batzuetan, eredu direlako hautatu ditugu; besteetan, hobetu daitezkeelako. Hauek aukeratzean, ez da gure asmoa izan inoren lanik gutxiesteaz; alderantziz baizik. Estimatzeko ditugulako erabili ditugu, nahiz eta batzuetan zer hobetua baduten; gure iritziz, behintzat. Tarteka, zertxobait ukitu ere egin ditugu, gaurko ortografia-arauetara egokituz-eta.

Azkenik, gure lan honek zer hobetua ere baduelakoan, zabalik geratzen da, zuen ekarpen eta iruzkinen zain. Esker mila, aldeztu aurretik.

1. EGITASMOA

Gure lan honen asmoa ulertzeko, ezinbestekoa da kontuan izatea zein den euskal testugintzaren gaurko egoera. Kapitulu honetan, egoera hori nola ikusten dugun azaltzen saiatuko gara lehenik. Ondoren hitz egingo dugu geure egitasmoaz.

EUSKAL TESTUGINTZA, GAUR

Hamaika puntutan laburbil genezake, Luis Villasante eta Koldo Mitxelena lagun, zertan den gaur euskal testugintza eta zer egiteko dugun euskal testugintzarekiko.

1. Luis Villasantek, artean euskaltzainburu zela, egoki eta ozen azaldu zuen, *Euskararen auziaz* liburuan, zein den gaurko euskal prosaren egoera (VILLASANTE, 1988: 142):

Euskarak behar du prosa egiteko moldea ongi finkatua eta trenpatua izan. Hau da, segur aski, euskarak duen premia gogorrenetako bat. Hori duen egunean, euskara bere bizkar-hezurraz horniturik izanen da. Eta hori ez duen bitartean, tresna alferra izango da, gai ez dena, zeregin askotarako balio ez duena.

Euskara hizkuntza bizia izan dadila: horra gure mintzairaren premietan lehenbizikoa; baina horren hurrengo, prosa egiteko tresna moldaturik edukitzea da, ene ustez, bigarrena.

Gero eta argiago ikusten ari gara zeinen arrazoi handia zuen euskaltzainburuak: zeinen kamutsa eta mugatua gelditzen zaigun batzuetan geure prosa.

Are gehiago: hitz horiek, neurri batean, ahozko euskarari ere bada-
gozkio; zehatzago esanda, komunikabideetako ahozko euskarari. Askotan, komunikabideetako hizketako jardunak idatzia baitu oinarri; alde
aurretik idatziz prestatutakoa baliatzen (irakurtzen) baitute esatariek-
-eta. Horregatik, hemen testugintzaz dihardugu, oro har.

2. Gernikarrak, gainera, prosa gutxitu horren eragile nagusia ere salatu zuen: XIX. mende amaieran eta XX.aren hasieran, euskararen mundua astindu zuen garbizalekeria. Ordu arte, bere bidea egiten ari zen euskal prosa apurka-apurka, bai euskalki banatan, bai euskalkien arteko batasunean. Garbizalekeriak, ordea, eten egin zuen bilakaera.

Ezaguna dugu zer-nolako eragina izan zuen garbizalekeriak euskal lexikoan; erraz ahantz dezakegu, ordea, sintaxiaren arloan izan zuena, nahiz eta hura bezain kaltegarria suertatu gutxienez.

3. Horren ondorioz, Villasantek berak dioen moduan, «besoz eta zangoz katigatua» geratu zen euskal prosa (VILLASANTE, 1975: XII; 1976: XV). Eta, hain zuzen, testu-antolatzaileen erabilera murriztua izango da prosa gutxitu honen ezaugarrietako bat (VILLASANTE, 1975: X-XI) eta hitz-ordena desegokia, bestea.

Gaitz horien kariaz, bi arazo nagusi atzematen ditugu gaurko euskal testugintzan; idatzian, batez ere: atzerakarga eta pausaldiak markatzeko zailtasuna.

Datorren kapituluan garatuko dugu puntu hau.

4. Gainera, gaurko gure testugintzaren egoera ulertzeko, beste faktore bat ere kontuan hartu behar da gure ustez, garbizalekeriarekin batera: gramatikaren izenean arautu nahi izana edo ulertu izana, besteak beste, hitz-ordenaren eta testu-antolatzaileen erabilera, soilik gramatikaren alorreko balira bezala.

Euskal gramatikari buruz, bi uste oker bezain gaizto daude euskaldunon artean zabaldua: batetik, arautzen duena baino gehiago arautzen duela eta, bestetik, zenbait hizkuntza-baliabideren erabileran (esaterako, testu-antolatzaileen eta hitz-ordenaren erabileran) nahikoa dela arau gramatikalak betetzea.

Hori esatean, ez gara ari gramatika gutxiesten, baizik eta duen zeregina zehazten: zeregin funtsezkoa eta oinarritzkoa, baina ez erabatekoa.

5. Villasanteren hitzek ez dute gaurkotasunik galdu. Izan ere, konpondu gabe ditu euskal testugintzak, oraindik, testu-antolatzaileen murrizketak eta hitz-ordena desegokiak sortutako arazoak.

Hala ere, azken urteotan egin dugu aurrerabiderik, eta itxaropenez ikus dezakegu eginkizun dugun bidea.

6. Aurrerabide horretan, laguntza handia eskaintzen ari zaigu hizkuntzaren ikuspegi komunikatiboa.

Ikuspegi komunikatiboa, batetik, ikuspegi gramatikala osatzera dator, eta hizkuntza-erabileraren ikuspegi beteagoa eskaintzera; bere baitan hartzen baititu lau ikuspegi, elkarren osagarri eta aberasgarri: gramatikala, soziolinguistikoa, testuala eta estrategikoa. Eta gaitasun komunikatiboaz ari garenean ere, lau gaitasun ditugu hizpide,

aurreko ikuspegi horien araberakoak, hain zuzen: gramatikala, soziolinguistikoa, testuala eta estrategikoa; laurak batera, osotasun betean.

Eta ikuspegi askotariko horretatik era egokian irakur dezakegu, hain zuzen, Koldo Mitxelenak, Euskaltzaindiaren Arantzazuko 1968ko biltzarrean aurkeztutako txostenean, joskerari buruz zioena (MITXELENA, 1968: 218-219).

7. Funtsezkoa da hizkuntzaren ikuspegi gramatikala, funtsezkoa den bezala gaitasun gramatikala. Funtsezkoa eta nahitaezkoa; ez, ordea, nahikoa.

Gramatikaz ari garenean, hizkuntzaren zuzentasunaz ari gara. Gaitasun gramatikalak hizkuntza zuzen erabiltzera garamatza; esaldiak hizkuntza-arauen arabera sortzera, zer den zuzena eta zer ez bereiziz, arauak jakinaren gaineko izan ala ez.

Hizkuntza baten erabilera aztertuz egiten da gramatika. Erabilera horretan atzemandako legeek eta arauak osatzen dute gramatika. Arau horiek bete ezean, oker erabiliko dugu hizkuntza. Baina arau horiek ez dute hizkuntzaren erabilera osoa arautzen; eta, hizkuntza modu egokian erabiltzeko, ez da nahikoa arau horiek betetzea.

Horrela uler dezakegu Mitxelenak Arantzazun esana (egilearenak dira kakotzak):

Euskal prosa arruntaren izatea, egoera eta huts-beteak aztertu nahi genituzke, “gramatikatasunean” landaturik baina “gramatikatasun” soilean oinak itsasten ez zaizkigularik.

8. Hizkuntzaren ikuspegi soziolinguistikoak, lehen momentuan, hizkuntza erabiltzen den ingurura garamatza. Nolako testuingurua (igorlearen rola eta xedea, hartzailearen rola, erabilera-esparrua, gaia...), halako erabilera. Eta horixe adierazten du gaitasun soziolinguistikoak: testuingurura egokitzeko gaitasuna.

Testuinguru horretara egokitzeko, berriz, hizkuntzaren ondarea du hiztunak eskura: aurreko hiztunek, erabileraren erabileraz, osatu duten ondarea.

Ondareaz ari garela, testu-generoez eta tradizioaz ari gara.

Hala, testu-generoek ere osatzen dute hizkuntza. Testu-genero horiek eskura ditu hiztunak, erabili nahi ditueneko. Molde jakin batzuk eskaintzen dizkiote: alde aurretik landutako jarraibideak. Eta jarraibide horien harian gauzatuko ditu ekintza komunikatiboak; batzuetan, bide berriak urratuz, molde zaharrak sormenez gaintuz;

gehienetan, molde horiek oharkabean erabiliz, beti dena hutsetik asmatzen ibili gabe.

Era berean, hiztunak eskura ditu tradizioak landutako prosa-moldeak edo hizketa-moduak; hauek ere, baliabide ugariak eskainiz eta komunikazio-bideak erraztuz.

Hiztuna, gaitasun soziolinguistikoa eskuratuz, testu-generoen eta prosa-moldeen eta hizketa-moduen erabileran trebatzen joango da, betiere gizartearen baitan, testuinguru jakin batean, eta hiztunekiko etengabeko elkarreraginean, ondarea eta tradizioa eguneratuz.

Ikuspegi honen argitan, esanahi betea hartzen dute Mitxelenaren Arantzazuko hitzek:

Lege zaharrei eginahalean eustea da, noski, Euskaltzaindiaren egin-bidea eta ez du amorerik emango ezinbestean baizik. Euskal autore gailenak ditu eredu eta, haiei buruzko iritziak denborak gutxi edo gehiago aldatzen baditu ere, badu hor oinarri sendoa.

Maila edo mota bat baino gehiago daude euskara idatzian. Poesia-mintzaera landua dugu aspaldidanik eta orain ere lantzen ari zaizkigunak baditugu; bide bat baino gehiago badugu sail horretan eta ez zaio inori debekatzen bide berrietan barrena abiatzea. Orobat esango nuke, hainbestean ez bada ere, elkarrizketari dagokionez, aho-mintzaerari lotuago ageri den elkarrizketari: teatroak, ipuin-eleberriek erakutsi digute zer den eta zer izan daitekeen.

9. Molde zabalak eskaintzen dituzte testu-generoek; arau zorrotzak ezartzen gramatikak. Testua dago molde zabal eta arau estu horien artean.

Azken batean, ahozko testuetan nahiz idatzietan gauzatzen du hiztunak bere ekintza komunikatiboa, esaldi barneko hitzak ordenatuz eta lotuz, esaldiak ere ordenatuz eta elkarrekin lotuz eta lerrokadak (paragrafoak) osatuz, informazioa egoki antolatuz eta osatuz...

Osoasuna baita testua, esaldi solteen pilaketa baino gehiago; hainbat zatiren batuketa baino harago: testu-genero baten baitan hezur-mamitzen den osotasuna.

Eta osotasun horrek ere baditu bere legeak; hauek ere, funtsezkoak, nahiz eta gramatika-arauak bezain zorrotzak izan ez.

Ikuspegi testualari zor diogu hori atzeman izana. Gaitasun testuala erabiliz lortuko dugu egoki antolatutako eta lotutako testuak sortzea, ahoz nahiz idatziz.

Hain zuzen, testuaren arlo honetan kokatu behar dugu, batik bat, Villasantek salatutako premia gogorra. Gogor eraso baitzuen arlo hau

garbizalekeriak, XIX. mendearen amaieran eta XX.aren hasieran. Eta oraindik ere ez baitira gauzak beren onera etorri.

Eta horretaz dihardute, behin eta berriro, Mitxelenaren Arantzazuko hitzek ere:

Sartaldeko hizkuntzarekiko prosa zenbait bidetan barrena ibiltzen ikasia eta trebatua da, latinaren ondotik, jakina, goragokorik aipatu gabe. Era berean, hainbeste ez bada ere, geure hizkuntza.

Ibilaldi horiek hizkuntza, edozein hizkuntza, arinago, zaluago, malguago bihurtu dute. [...] Latinaren, eta erabat sortaldeko hizkuntzen, kutsua geure bekokian daramagu. Aitor dezagun, onar dezagun, eta goazen aurrera bide horretarik.

Egungo prosa, gaiak bereizten ez duenean, ez da hizkuntza batekoa eta batena, nazioartekoa baizik: B.L. Whorf-ek “standard average European” deitu zuena. Euskal idazlerik gehienek ere ez dute bestela jokatu. Ezin bazter eta arbuia dezakegu zor diegun hizkuntzaren lantzea, beti irabazle izan ez bagara ere.

10. Baina dena ez da arau eta lege, estu nahiz lasai. Behin arau gramatikalak betez gero eta testuaren legeak aintzat hartuta, eremu handi bat zabaltzen zaio hiztunari: askatasunaren (eta erantzukizunaren) eremua.

Eta, eremu horretan, hiztunari berari dagokio erabakiak hartzea. Horretan lagun izango ditu, bai, gure aurreko hiztunek utzi diguten ondarea eta moldatu diguten tradizioa. Baina hiztunak berea du azken hitza, lortu nahi duenaren arabera. Berari dagokio erabakitzea zein aukera hobetsi, zein baliabide hautatu, zein estrategia erabili. Erabakimen honi deitzen diogu gaitasun estrategikoa.

Horretaz ere mintzo da Mitxelena Arantzazun. Are gehiago (nahiz eta terminoa bera erabili ez), gaitasun estrategikoa aipatuz eta gorai-patuz amaitzen du joskeraren atala, sintaxiarekiko eta estilistikarekiko auziei eskainia; eta atal horrekin burutzen du txosten osoa.

Hitz-ordenaz eta aurkitu diren legeak ez dira idazlea estekatzeko kateak, honen kemenak gehi ditzaketen lanabesak baizik, hitzen indar ezkutua nabarmenduz. Idazlearen eginkizuna erraz da adierazten, gaitz betetzen: hizkuntzari bere burua menderatuz, hizkuntza menderatu, hizkuntza-legeen lokarriak eta trabak, airea hegaztiarentzat bezala, sostengu eta laguntza bihur daitezen.

11. Laburbilduz, gaitasun gramatikalaz erabakitzen dugu hizkuntzaren erabileran zer den zuzena eta zer ez. Nahitaezkoa da ikuspegi hori,

baina nahikoa ez. Zuzenaz gain, egokia ere izan behar baitu hizkuntzaren erabilerak: bai testu-legeen arabera (ikuspegi testualetik) eta bai testuinguruaren arabera (ikuspegi soziolinguistikotik). Eta egokitasun bikoitz hori lantzeko baliabide ezin hobea izango dugu gaitasun estrategikoa.

Gaitasun horiek baliatuz gauzatzen ditugu eguneroko ekintza komunikatiboak, aldian aldiko testuinguruaren arabera, aurrekoek utzitako ondarea etengabe erabili eta eguneratuz.

Gaitasun horiek egoki erabiliz ari gara aurrerabidea urratzen euskal prosaren moldaketan, eta gaitasun horiexek izango ditugu aurrerantzean ere bidelagun.

GURE EGITASMOA

Lan honetan, euskal testugintzaren gaurko egoera dugu abiapuntu; eta egoera horri erantzutea xede, gure aurrekoek egindakoa aintzat hartuta eta euskal gizartekideok egiten ari garenaren baitan.

Horretarako, testuaren alorrean kokatu gara, eta testuaren osagaietako bat jo dugu begiz: testu-antolatzailea. Eta osagai hori —eta hauxe da gure ustez erabakigarriena— ikuspegi estrategikoaz baliatzea erabaki dugu, galdera bat gidari: nola erabili testu-antolatzaileak modu estrategikoan, bai eguneroko ekintza komunikatiboak gauzatzeko, bai euskal testugintza eguneratzeko.

Lau kapitulutan banatu dugu lana. Lehenengo honetan, euskal testugintzaren beharrak azaldu ondoren, geure egitasmoaren berri ematen ari gara. Bigarren kapituluan, lan honetako bi protagonista nagusiak aurkeztuko ditugu: testu-antolatzaileak eta ikuspegi estrategikoa. Eta hirugarrenean eta laugarrenean, adibideak izango ditugu bide-erakusle.

Dena den, sarrerako lehen oharrean esan dugunez, izango da liburu honen erabiltzaileetan adibideetatik hasi nahiko lukeenik. Ez da estrategia batere desegokia. Azken batean, norberak bilatu behar du nola urratu eta egin bere bidea: nola eskuratu apurka-apurka gaitasun komunikatiboa eta nola erantzun ahoz nahiz idatziz euskaldunon arteko komunikazio-beharrei.

BIBLIOGRAFIA

- MITXELENA, Luis (1968): Txostena "Ortografia", in *Euskera* 13: 203-219.
- VILLASANTE, Luis (1975): "Hitzaurre gisa", in ALTUBE, Sebero. *Erderismos*. Bilbo: Indauchu, V-XII.
- VILLASANTE, Luis (1976): "Seigarren edizioari aitzinsolasa", in AXULAR, Pedro. *Gero. Oñati: Jakin*, IX-XXXIV.
- VILLASANTE, Luis (1988): *Euskararen auziaz*. s.l., s.n. ("Luis Eleizalde" saila, 9).

2. ESTRATEGIAK ETA TESTU-ANTOLATZAILEAK

Bigarren kapituluan, lan honetako bi protagonistak –estrategiak eta testu-antolatzaileak– aurkeztuko ditugu lehenbizi. Ondoren ikusiko dugu zer esan nahi duen testu-antolatzaileak era estrategikoan erabiltzeak.

Estrategien mundua

Ikuspegi gramatikaetik ikuspegi komunikatibora
Estrategiak

Testu-antolatzaileak

Testu-antolatzaileen eremuaz jabetzen

Abiapuntua: lokailuak

Lehen saila: testu-markatzaileak (lokailuak, barne)

Bigarren saila: juntagailuak eta menderagailuak

Hirugarren saila: zenbait adberbio, adberbio-esapide eta postposizio-sintagma

Testu-antolatzaileak, testu erreal batean: “Jainko txikia”

Testu-antolatzaileen egitekoak

Lotu

Iragarri

Tarteki izan

Testu-antolatzaileen erabilera estrategikoa

Zertarako erabili testu-antolatzaileak era estrategikoan

Atzerakarga arintzeko

Pausaldiak markatzeko

Zer neurritan erabil daitezkeen testu-antolatzaileak era estrategikoan

Bibliografia

ESTRATEGIEN MUNDUA

Hizkuntzaren erabileran estrategiak zer diren egoki atzemateko, komeni da argi izatea zer den hizkuntzaren ikuspegi gramatikala eta zer ikuspegi komunikatiboa, eta zer alde funtsezko dagoen bi ikuspegien artean.

Ikuspegi gramatikaletik ikuspegi komunikatibora

Orain, *ikuspegi gramatikala* esatean *ikuspegi gramatikal hutsa* esaten ari gara; hau da, hizkuntzaren erabilera ikuspegi horretatik soilik ikusten duena.

Ikuspegi gramatikal horren arabera, dena da gramatika hizkuntzan eta honen erabileran. Dena arau daiteke, eta nahikoa da arau horiek betetzea. Arauak betez, zuzen ez ezik, egoki ere erabiliko dugu hizkuntza.

Ikuspegi eskusibista hori gainditu nahi du ikuspegi komunikatiboa. Ikuspegi berri honek bere baitan hartzen du ikuspegi gramatikala, eta beste hiru ikuspegiz osatu eta zuzentzen du. Ikuspegi soziolinguistikoa, ikuspegi testuala eta ikuspegi estrategikoa dira beste hiru ikuspegi hauek; eta, oso era soilean bada ere, aurkeztuak ditugu aurreko kapituluan.

Hemen, gauza bat azpimarratu nahi dugu. Norbaitek gaizki ulertuko luke ikuspegi komunikatiboa, baldin eta lau ikuspegi horien metaketa soil bezala ulertuko balu. Ikuspegi komunikatiboa ez da eskuratzen ikuspegi gramatikala eta beste hiru ikuspegi horiek gehitu hutsez. Osotasun berria baita ikuspegi komunikatiboa. Bestela esanda, ikuspegi komunikatiboak pentsamolde berria eskatzen du; edo, gaur zenbait jakintza-arlotan esaten den bezala, paradigma-aldaketa. Eta denok dakigu zeinen nekez eskuratzen diren pentsamolde eta paradigma berriak. Zenbat denbora behar izaten den. Zenbat eginahal egin.

Gurean ere, zaila gertatzen ari zaigu ikuspegi gramatikal hutsetik ikuspegi komunikatiboranzko ibilbidea. Bi adibide soilek lagun diezagukete hori ulertzen. Zorionez, denboran atzera egin behar dugu adibide horien bila.

- Ohikoa izan da, profesionalen euskara hobetu behar-eta, Euskaltzaindiaren arau berriak azaltzeko ikastaroak eratzea; baina horretara mugatuz, arauak ikastea eta horiek betetzea nahikoa balitz bezala;

konturatu gabe euskara egoki erabiltzeko beste gaitasun batzuk ere landu behar direla, gaitasun gramatikalaz gain.

- Duela urte gutxi batzuetako estilo-liburuetan, toki handia hartzen zuten gramatika-arauek, noiz eta liburu horiek arauak jakintzat eman eta harago joan beharko luketenean.

Ulertzekoa da horrela jokatzea. Euskaldunok, euskaraz (ahoz nahiz idatziz) ari garela, sarritan jo behar izaten dugu arauetara: “nola ote da hau euskara batuan?”, “zein ote da Euskaltzaindiaren azken erabakia?”, “nola ote da dena delako erdal hitzaren euskal ordaina?”... Ez da harritzekoa, kontuan izanda zer-nolako eginahala egiten ari garen, denbora gutxian, euskara arautzen (batzen eta gramatikaz hornitzen) eta normalizatzen (gizartearen esparru gehienetara zabaltzen).

Baina joera arriskutsua ere izan daiteke, baldin eta dena arauak ematera edo betetzera mugatzen badugu, edo hizkuntzaren erabileran dena arau dela uste izatera bagaramatza. Horrela, arau-gehiegikeria sortzen da. Ez dagozkien arloak eta egitekoak hartzen dituzte arauak. Eta, horrekin batera, halako arau-mendekotasuna eragiten zaie hiztunei (eta idazleei), dena lehendik araututa balego bezala, edo erabakiak beti bestek hartu beharko balitu bezala.

Baina, zorionez, gero eta zabalduagoa dago ikuspegi komunikatiboa. Eta, hain zuzen, ikuspegi berri horren baitan kokatzen da ikuspegi estrategikoa; eta ikuspegi honen baitan, estrategiez eta gaitasun estrategikoaz hitz egin beharrean gara.

Estrategiak

Hizkuntzaren erabileran, erabakien mundura garamatza *estrategia* terminoak, eta mundu hau arauen munduari kontrapuntu eginez ikustera.

Arauen mundua da gramatikaren mundua. Hizkuntza guztiek dituzte beren arauak, beren gramatika. Arau horiek bete ezean, ez dago hizkuntzarik. Adibidez, euskara da *Eguzkiak argi egiten digu* esaldia; ez, ordea, *Eguzkia argi egiten digu* edo *Eguzkiak egiten argi digu*.

Baina hizkuntzaren erabileran dena ez da arau. Behin hizkuntza-arauak betez gero, askatasunez joka dezake hizkuntza-erabiltzaileak; esanez, besteak beste, *Argi egiten digu eguzkiak* edo *Eguzkiak egiten digu argi*.

Horrela, askatasunaren eta erabakien munduan sartzen gara. Eta mundu hau zabalduz doa testua luzatuz doan neurrian. Esaterako, urrutira joan gabe, honela ere idatz dezakegu lerrokada hauxe:

Askatasunaren eta erabakien munduan sartzen gara horrela. Eta mundu hau, testua luzatuz doan neurrian, zabalduz joango zaigu. Urrutira joan gabe, honela ere idatz dezakegu, esaterako, lerrokada hauxe.

Eta hamaika aldaketa egin ditzakegu: hitzak lekuz aldatuz, hitzak berak aldatuz edo ordezkatzuz, esaldiak luzatuz ala laburtuz, esaldien ordena aldatuz... Hain da handia estrategien mundua!

Esaterako, hizketan ari garela, etengabe erabiltzen ditugu estrategiak. Eten-gabe eta era askotakoak.

- Mesedeak eskatzeko, zuzenean eskatu ordeztuz (“emadazu hori, mesedez”), zeharka eskatu ohi dugu. Esaterako, iradokizunak eginez (“gustatuko litzaidake hori eskuratzea”; “estimatuko nizuke hori ematea”); edo nor bere beharrak azalduz (“ez litzaidake, ba, gaizki etorriko...”) edo galde-tuz (“ez al zaizu iruditzen...?”).
- Menderatzen ez ditugun aditz-formak saihesteko, “eman diezaz-kizuket” ez baina, “badut horiek ematea” edo “emango dizkizut” esan ohi dugu...

Eta abar. Nahi adina ugal ditzakegu adibideak, era askotako estrategiak aipatuz. Izan ere, behin gramatikaren mundutik irtenez gero, askatasunaren eremu handi batekin egiten dugu topo.

Askatasunaren eremua! Erabakien eta erantzukizunaren eremua.

Eremu honetan, hiztunari berari dagokio erabakiak hartzea (betiere, arauak betez). Ikuspegi honetatik, erabaki egokiak hartzen dituen da hiztun eta idazle ona. Horretantxe da eredu: erabakiak hartzen. Eta horixe ikasi behar dugu hiztun eta idazle onetatik. Kontua ez da horien estiloa imitatzea; baizik geure gaitasun estrategikoa lantzea. Besteak beste, testu-antolatzaileak era estrategikoan erabiliz.

TESTU-ANTOLATZAILEAK

Zertaz ari gara testu-antolatzaileez ari garenean? Zein dira testu-antolatzaileak? Zer egiteko dute?

Hiru puntutan saiatuko gara galdera horiei erantzuten: lehenengoan, testu-antolatzaileen eremuaz jabetuko gara; bigarrean, testu erreal batean atzemango ditugu testu-antolatzaileak; hirugarrean, testu-antolatzaileen egitekoak ikusiko ditugu.

Testu-antolatzaileen eremuaz jabetzen

Apurka-apurka, ari gara jabetzen testu-antolatzaileen eremuaz, ikuspegi gramatikaletik ikuspegi komunikatibora igarotzen ari garen neurrian.

Ibilbide horretan, lau urrats irudika ditzakegu. Hala egin ditugu, behintzat, gutako batzuek. Lehenik, lokailuez jabetu ginen; ondoren, testu-markatzaileez, lokailuak ere hauen baitan kokatuz; gero, testu-antolatzaileen multzoan sartu genituen juntagailuak eta menderagailuak ere; eta, azkenik, zenbait adberbio, adberbio-esapide eta postposizio-sintagma bertaratu genituen.

Beraz, azken batean, hiru sail bereiz ditzakegu testu-antolatzaileetan: 1) testu-markatzaileak (hauen baitan kokatuz lokailuak), 2) juntagailuak eta menderagailuak eta 3) zenbait adberbio, adberbio-esapide eta postposizio-sintagma.

Dena den, hiru sail horien berri eman aurretik, ikus dezagun Euskaltzaindiaren Gramatika batzordeak lokailuei buruz egindako lana.

Abiaburua: lokailuak

Lan bikaina plazaratu zuen, 1990ean, Euskaltzaindiaren Gramatika batzordeak, lokailuei buruz: *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak III* (EGLU III). Nahiz eta ikuspegi gramatikaletik egina izan, bere baitan zeramatzan ikuspegi testualaren zantzuak. Eta zantzu horiek zabaldu ziguten ikuspegi testuala.

Besteak beste, honela mintzo zen sarreran (EUSKALTZAINDIA, 1990: XIII):

Edukiari dagokionez, liburuki berri honek, *lokailu* deitu ditugun zer gramatikal batzuk ditu aztergai. Ez dakigu asmatu ote dugun izen honekin. Baina hor zehar perpausen artean, testuari lotura ematerakoan perpaus batetik bestera eraman behar izaten den hariari eusten laguntzen diguten hainbat hitz eta esapide berezirentzat lekua bilatu nahi izan dugu geure gramatikan. Hemen aurkituko diren hitzak askotan perpausen arteko zirriritu horietan kokatuak ikusten ditugu, sarri ez dakigularik zein den garbi beren gramatika kategoria. Hauek dira *lokailu* izenez bataiatu ditugun elementuak.

Lanak bost sail handi bereizten ditu lokailuetan: emendiozkoak, hautakariak, aurkaritzakoak, ondoriozkoak eta kausazkoak. Eta gero, zerrendatzean, lokailu horiekin batera aipatzen ditu, era berean, bai lokailu moduan erabil daitezkeen juntagailuak (*eta, edo, ala, baina*), bai zenbait esapide (*zernabi gisaz, nolnabi ere, edozelan bere, edozein modutan ere, edozein moduz, guztiarekin ere*).

Hona hemen (letra lodian doaz juntagailuak eta esapideak).

LOKAILUAK

EMENDIOZKOAK	<i>Eta</i> , <i>ere, gainera, bestalde/bertzalde, halaber</i> (orobat, berebat), <i>behintzat, bederen, bederik, behinik behin, badere, badarik (ere)</i>
HAUTAKARIAK	<i>Edo, ala</i> , <i>bestela/bertzenaz, osterantzean, gainerantzean</i> (gainerakoan, gaineratikoan, gainerakoz), <i>ezpere(n), ezpabere</i>
AURKARITZAKOAK	<i>Baina</i> , <i>ordea, berriz, ostera, aldiz, aitzitik, bizkitartean, bitartean, bien bitartean, (t)arte horretan, artean, alta, alabaina, alabadere, dena dela, dena den, hala ere (halere), hala eta guztiz ere, haatik/hargatik, horratik/horregatik, barren, badarik ere, zernabi gisaz, nolnabi ere, edozelan bere, edozein modutan ere, edozein moduz, guztiarekin ere...</i>
ONDORIOZKOAK	<i>Beraz, bada, hortaz, orduan, honenbestez, horrenbestez, hainbestez, halatan, hala</i>
KAUSAZKOAK	<i>Zeren, zergatik, alabaina, bada, izan ere</i>

Horiek erabiliz hasi ginen hobeto geureganatzen, apurka-apurka, testua ez dela esaldi-pilaketa hutsa; eta esaldiek, elkarrekin lotuz, esaldi mailakoa baino unitate handiagoa osatzen dutela: testu mailako unitatea.

Urrats handia egiten ari ginen, lehendik senez-eta sumatu genuena hobeto atzemanez. Eta berehala osatuko genuen urrats hori; besteak beste, lokailuei buruzko lan horretan zirriborratuak zeudelako hurrengo urratsak ere.

Lehen saila: testu-markatzaileak (lokailuak, barne)

Lokailuek zabalduetako bidetik, azkar hasi ginen ohartzen badirela antzeko egitekoak dituzten beste zenbait hitz eta esapide ere. Hurrengo urratsa egiten ari ginen. Horren erakusle dira, besteak beste, zenbait lan: bai HABEK argitaratua (ZOCK, 1992), bai unibertsitatean eginak (LARRINGAN, 1996; ZABALA (koord.), 1996), bai Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak plazaratua (EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE eta IKERKETA SAILA, 1997).

Urrats hori sendotzeko, baliagarri izan genuen gaztelaniazko gramatika bat ere; zehatzago esanda, *Gramática descriptiva de la Lengua Española* obra handiko “Los marcadores del discurso” lana (MARTÍN; PORTOLÉS, 1999).

Eta bide hori sakontzen lagundu digu, esaterako, *La connexió i els connectors* lanak ere (CUENCA, 2006).

María Antonia Martínek eta José Portolésekin diskurtso-markatzaileez dihardute, eta markatzaile horien baitan kokatzen dituzte lokailuak, baina betiere ikuspegi gramatikala erabiliz; hau da, hizkuntza-unitate aldaezinak soilik joz diskurtso-markatzailetzat. Hala, horien arabera, testu-markatzailea dugu *horregatik*, baina ez *arrazoi horiengatik*; *horregatik* unitate aldaezina delako eta *arrazoi horiengatik* ez.

Dena den, horien sailkapena eta taula baliatuz zabal dezakegu lokailuen eremua (MARTÍN; PORTOLÉS, 1999: 4.081). Bide batez, egokiagoa iruditzen zaigu, *diskurtso-markatzailea* ez baina, *testu-markatzailea* terminoa erabiltzea, *testu-antolatzaileez* ari garenez.

TESTU-MARKATZAILEAK

INFORMAZIOAREN EGITURATZAILEAK	IRUZKINGILEAK	<i>ba, horiek borrela...</i>
	ORDENATZAILEAK	<i>lebenik/bigarrenik; (alde) batetik/bestetik...</i>
	ZEHARKARIAK	<i>hau dela-eta, bide batez...</i>

OPERATZAILE ARGUDIOZKOAK	INDARTZAILEAK	<i>benetan, berez...</i>
	ZEHATZAILEAK	<i>adibidez, esate baterako, esaterako, konparazione, kasu...</i>
LOKAILUAK	EMENDIOZKOAK	<i>ere, gainera, bestalde/bertzalde, balaber (orobat, berebat), behintzat, bederen, bederik, behinik behin, badere, badarik (ere)</i>
	HAUTAKARIAK	<i>bestela/bertzenaz, osterantzean, gainerakoan (gainontzean, gaineratikoan, gainerakoz), ezpere(n), ezpabere</i>
	AURKARITZAKOAK	<i>ordea, berriz, ostera, aldiz, aitzitik, bizkitartean, bitartean, bien bitartean, (t)arte horretan, artean, alta, alabaina, alabadere, dena dela, dena den, balare (halere), hala eta guztiz ere, haatik/bargatik, horratik/horregatik, barren, badarik ere</i>
	ONDORIOZKOAK	<i>beraz, bada, hortaz, orduan, honenbestez, horrenbestez, hainbestez, halatan, hala</i>
	KAUSAZKOAK	<i>zeren, zergatik, alabaina, bada, izan ere</i>
BIRFORMULATZAILEAK	ESPLIKATIBOAK	<i>hau da, hots, alegia...</i>
	ZUZENTZAILEAK	<i>hobeto esan, bestela esan...</i>
	URRUNTZAILEAK	<i>nolanabi (ere)...</i>
	LABURBILTZAILEAK	<i>ondorioz, azken batean, azken finean...</i>
BERBALDI-MARKATZAILEAK	EPISTEMIKOAK	<i>noski, antza, omen, ote, agi danean, jakina, dirudienez, nonbait...</i>
	DEONTIKOAK	<i>tira, ondo da...</i>
	BESTERATZAILEAK	<i>aizu, aizue...</i>
	METADISKURTSIBOAK	<i>zera, ba...</i>

Bigarren saila: juntagailuak eta menderagailuak

Baina testu-markatzaileena baino handiagoa da testu-antolatzaileen eremua. Ereku horretakoak baititugu juntagailuak eta menderagailuak ere, esaterako Bronckartek dionez (BRONCKART, 1996: 270).

Horretaz ohartu zen, nolabait, Euskaltzaindiaren Gramatika batzordea, lokailuak landu zituenean. Horrexegatik, hemen arestian lokailuak zerrendatzean, tartekatu ditugu (letra lodiz) batzordeak aztertutako juntagailuak ere (*eta, edo, ala, baina*).

Aspaldiko ezagunak ditugu juntagailuak eta menderagailuak; aspalditik landu ditugu ikuspegi gramatikaletik. Orain, ordea, izaera beteagoa hartzen dute ikuspegi zabalagoaz ulertuta.

Hemen, ez ditugu zerrendatuko. Horien berri zehatz-mehatz ematen ari baita, besteak beste, Euskaltzaindiaren Gramatika batzordea (1994, 1999, 2005).

Eta ezin ahantzi, besteak beste, *Euskal gramatika deskriptiboa* (AGIRRE, 1991), *Euskal gramatika osoa* (ZUBIRI, I.; ZUBIRI, E, 2000) eta *Bizkai euskeraren jarraibide liburua* bikoitza (AREJITA (zuz.), 2001, 2005).

Hirugarren saila: zenbait adberbio, adberbio-esapide eta postposizio-sintagma

Hirugarren saileko testu-antolatzaile hauetako batzuk ere aipatuak ditugu, bai lokailuak zerrendatzean, letra lodiaz tartekatuz juntagailuekin batera (*zernahi gisaz, nolanhabe ere, edozelan bere...* esapideak), bai Martín eta Portolésen lana aurkeztean ere (*arrazoi horregatik*).

Hauek ere ez ditugu zerrendatuko. Oraintxe ikusiko ditugu adibide batzuk, testu erreal batean.

Sailkapenak sailkapen, ikuspegi berria eskuratzea da garrantzikoena; eta gogoan izatea, azken batean, testuak egoki osatzea eta lotzea dela kontua, besteak beste, testu-antolatzailek era estrategikoan erabiliz.

Testu-antolatzaileak, testu erreal batean: “Jainko txikia”

Ongien, testu batean ikusten da zer den testu-antolatzailea; gauzak gehiago zehazteko, ondo etorriko zaigu antolatzaile horiek sailkatzea.

Itzulpen bat da testua (ROSE, 1991). Eta laugarren kapituluan ere baliatuko dugu, adibide moduan, testu-antolatzaileen erabilera estrategikoa lantzean.

Orain, hasteko, testu-antolatzaileak markatuko ditugu, baina bereiziz.

- Letra lodi eta azpimarratuaz adieraziko ditugu testu-markatzaileak (*gainera...*), juntagailuak (*baina...*), menderagailuak (*duena...*), antolatzaile di-

ren adberbioak (*gaur...*) eta adberbio-esapideak (*hobe beharrez...*); hau da, postposizio-sintagmak ez beste testu-antolatzaile guztiak.

Horietako batzuk bi elementuz osatzen dira; hasieran doa lehenengoa eta amaieran bigarrena, tartean zenbait hitz dituztela. Horietan, bi elementuak bereiziko ditugu letra lodi eta azpimarratuaz, eta tartekoa azpimarra etenez (*nola haurra sarri bihurtu den...*).

- Postposizio-sintagmak adierazteko, azpimarra soila baliatuko dugu, baina letra lodiz nabarmenduz postposizioa (*gaizki maitatutako haurrak aipatzean...*).

Ondoren, arestian zedarritutako hiru sailetan banatuko ditugu.

Jainko txikia

1. Gaizki maitatutako haurrak aipatzean, gutxiegi maitatuak etorri ohi dira gogora, baina ez gehiegi maitatuak.
2. Pozgarrizat jotzen da, gaur, haurra helduaren interesgune bihurtu izana gizarteko zenbait sailetan; baina oraindik zehaztu gabe dago harreman-modu berri horren zer-nolakoa. Gure garaikideei behatzean, ikusten da nola haurra sarri bihurtu den jainko berri ukiezin, izaki sakratu, bakoitzak bere txokoa babestu nahi duena, munduko erasoetatik urrun.
3. “Haurra kontuan hartu”, orduan, “haurra bizitzako erdigune egin” bihurtzen da. Guraso askok aitortzen dute, gauzarik naturalena balitz bezala, beren haurra dela “dena berentzat”, noiz eta gurasoen egitekoak gutziz bestelakoa izan beharko lukeenean: beraiek izan haurraren erakarpen-gune.
4. Haurra, desiratua denean, gurasoek idealizatu egiten dute sarritan: hutsune bat betetzen du, bikotearen garaipenik gorena da. Eta nork esan ezetz jainko txikiari? Haurra jainko-mailan ipinita, ez diote ezer ukatzen, eta gurasoek nahiago dute beren burua zapuztu, haurra zapuztuta ikustea baino. Askok lanbidea aldatzen dute, edo etxea; eta dibortziazera ere iristen dira, haurraren ustezko “mesedetan”. Ordainetan, haurrak gai izan beharko du, jakina, berarengan ipinitako itxaropen izugarriari erantzuteko.

5. Haurraren gain-gainean egotea, askotan, gurasoen neurosia ezkutatzen duen morrontza da. Eta are ezkutuago geratzen da, gainera, giro kulturalaren eraginez eta merkataritzaren presioagatik.
6. Gure hiri modernoetako bihotzean, parkeak, autobusak, eskola-inguruak, jatetxeak dira kultu berri horren aparteko behatoki. Alde guztietan errepikatzen da lelo bera: haurra babestu. Bestela esanda: bere ekimenak ito, bere nagikeria indartu.
7. Jokaera horren oinarrian, bi uste daude, ondorio zalantzarriak dituztenak. Batetik, gizakiak ahalik eta neke gutxien jasan behar du era harmonikoan hazteko; eta harmonia, kasu honetan, gehiago da gatazkarik eza, indar osagarrien arteko oreka baino. Bestetik, haurraren egiazko premia, berriz, bat dator berak azaltzen duenarekin eta hau ere bat dator gurasoek premiaz duten ideiarekin.
8. Beraz, haurrak, jaio orduko, senaz jakingo luke zer den on beretzat. Harrigarria: senaren azalpen hutsera murrizten da kontzientzia. No-labait, azken mendeko moral victoriarraren gehiegikerien ordaina da.
9. Moral bitxi honek ukatu egiten ditu psikoanaliaren ekarpenak, nahiz eta bertatik elikatu. Izan ere, psikoanaliarentzat garrantzizkoa da pozak eta nekeak txandatzea, haurrak munduarekin dituen harremanetan.
10. Frustrazio jakin bat onuragarria izan daiteke, baldin eta gizakiari aukera ematen badio egitura psikikoa garatu eta ezintasun hori gainditzeko eta, ondoren, gero eta hobeto aurre egiteko antzeko egoerei. Frustrazio bat gainditzeko gaitasunari esker egingo da ume koxkorra, astiro-astiro, bere autonomiaren jabe.
11. Baina nola bideratu dinamika hori, non eta haurra etengabe asebetetzera bultzatzen duen giroan?
12. Helduaren zeregina, lehen-lehenik, haurrari laguntzea da heldu bihurtzen; hau da, laguntzea errealitateari aurre egiten —eta ez bizkar ematen—. Gurasoek, hobe beharrez, hesia jartzen dutenean haurraren eta errealitatearen artean, benetako esperientzia eragozten diote eta erreferentzia egokiak finkatzeko aukerak ukatzen dizkiote.

13. Nahiz eta haurrarekin hitz egitea beharrezkoa izan, zenbait helduren argibide sistematikoak eta pazientzia neurrigabea, ordea –adibidez, haurraren txorakeria batzuen aurrean–, kaltegarriak izan daitezke haurrarentzat, murriztu egiten baitiote errealitatea osorik atzemateko gaitasuna, eta sinestarazi bizitza beti onbera izango deia bere huts-egiteekin.
14. Horrela, eragotzi egiten diote munduarekin harreman sentsuala izatea ere, harreman erabat zerebralaren mesedetan. Adibidez: berdin al da jakitea zerbaitek, ukituz gero, min ematen duela, eta ukitu eta mina sentitzea? Haurra, berez, erresistentzien bila dabil, bere burua kokatzeko eta garatzeko. Aurkitu ezean, hutsune horrek sortutako antsia-
ren aurka erreakzionatuko du bihar edo etzi.
15. Gure hurrek ez dute ikasten mundura “jaiotzen”, eta jasanezina egiten zaie adoleszentziako aldaketa. Orduan, depresio sakon bat sortzen zaie askotan; eta horri, gainera, halako jarrera zinikoa eta nihilista eransten zaio, lehenbizi izandako gabezia azaltzen ariko balitz bezala: ezer ez du ukitu, ezerk ez du hunkitu, dena zaio higuin-garri!
16. Adoleszente honentzat, erresistentziarik txikiena ere bortizkeria da; bizitzaren indar bizia, jasanezina. Gabeziak jota bizi da, eta egituratzeko –eta ez soilik babesteko– aukera emango dion maitasunaren egarriz; atzera eginez, ordea, errealitatera eta honen basakeriara iristeko aukeren aurrean. Agresibitatearen eta malenkoniaren erdian harrapaturik, sufritzen dagoen izakiak ezin du bizitzan berak bakarrik aurrera egin.
17. Hala, gizarte-laguntzaileak, medikuak, psikologoak edo psikoanalistak etsipen-mota berri batekin egiten dute topo gero eta gehiagotan. Haurraren arazoan sorburua ez dago zoritxarreko haurtzaro batean, baizik eta, alderantziz, haurtzaro mimatu batean.

Guztira, 99 testu-antolatzaile bereizi ditugu. Horietako 21 dira testu-markatzaile; 58, junta-gailu eta menderagailu; eta 20, adberbio, adberbio-esapide edo postposizio-sintagma. Dena den, kasuren batean, zalantzarikoa gertatzen da non kokatu antolatzailea: menderagailuen artean ala postposizio-sintagmengan. Horrek orain, ordea, apenas duen garrantzirik.

1. Testu-markatzaileak

Informazioaren egituratzaileak

Ordenatzaileak: *batetik / bestetik* [7], *ondoren* [10], *lehen-lehenik* [12].

Lokailuak

Emendiozkoak: *gainera* [5, 15], *ere* [4, 7, 14, 16].

Aurkaritzakoak: *berriz* [7], *ordea* [13, 16].

Ondoriozkoak: *beraz* [8], *bala* [17].

Kausazkoak: *izan ere* [9].

Birformulatzaileak

Esplikatiiboak: *bau da* [12].

Zuzentzaileak: *bestela esanda* [6].

Operatzaile argudiozkoak

Zehatzaileak: *adibidez* [13, 14].

Berbaldi-markatzaileak

Epistemikoak: *jakina* [4], *nolabait* [8].

2. Juntagailuak eta menderagailuak

Juntagailuak

Emendiozkoak: *eta* [guztira, 24 aldiz].

Hautakariak: *edo* [4, 14, 17].

Aurkariak: *baina* [1, 2, 11], *baizik eta* [17].

Menderagailuak

Konpletiboak: *dela* [3, 13], *duela* [14].

Zehar-galdera: *nola... den* [2], *zer den* [8].

Kausalak: *baitiote* [13].

Baldintzazkoak: *baldin eta... ba-* [10], *-z gero* [14].

Erlatibozkoak

Arruntak: *duen* [5], *duenarekin* [7], *duten* [7], *dituen* [9], *dion* [16], *dagoen* [16].

Aposizioan: *...duena* [2], *...dituztenak* [7].

Denborazkoak: *noiz eta... -enean* [3], *denean* [4], *orduko* [8], *dutenean* [12].

Lekuzkoak:	<i>non eta... -en</i> [11].
Kontzesiboak:	<i>nabiz eta...</i> [9, 13].
Konparatiboak:	<i>balitz bezala</i> [3, 15], <i>-ago... baino</i> [4, 7].

3. Zenbait adberbio, adberbio-esapide eta postposizio-sintagma

Adberbioak [aditzondo nahiz adizlagun] eta adberbio-esapideak: *gaur* [2], *orduan* [3], *ordainetan* [4], *askotan* [5], *astiro-astiro* [10], *hobe beharrez* [12], *borrela* [14], *berez* [14], *orduan* [15], *alderantziz* [17].

Postposizio-sintagmak: *gaizki maitatutako haurrak aipatzean* [1], *gure garaikideei behatzean* [2], *haurra jainko-mailan ipinita* [4], *gure hiri modernoetako bihotzean* [6], *jokaera horren oinarrian* [7], *kasu honetan* [7], *aurkitu ezean* [14], *adoleszente bonentzat* [16], *atzera eginez* [16], *agresibitatearen eta malenkoniaren erdian harrapatuturik* [16].

Testu-antolatzaileen egitekoak

Testu-antolatzaile guztiek, funtsean, egiteko nagusi bera dute: testu zatiak lotu. Horretaz gain, iragarri ere egin dezakete, eta batzuetan tarteki ere izan ohi dira.

Lotu

Testu-antolatzaileek, lehenengo eta behin, lotu egiten dute. Horixe dute egiteko nagusi.

Lotura (artikulazio) horiek estuagoak dira batzuetan: lotura sintaktikoetan (juntagailu eta menderagailuek gauzatutakoetan); eta lasaiagoak bestetan: esaldien artekoak direnetan (markatzaileek-eta gauzatutakoetan).

Bestalde, batzuetan, testu unitate handiak lotzen dituzte (esaldiak edo esaldi multzoak); bestetan, testu unitate txikiagoak (sintagmak).

Iragarri

Zenbaitetan, beste egiteko bat ere badute testu-antolatzaileek. Lotu ez ezik, iragarri ere egiten dute: ondoren zer datorren iragarri, ondorengo nola irakurri (nola entzun) adierazi.

Gaztelaniaz, testu-antolatzaile (ia) guztiak izan daitezke iragarle; guztiak koka baitaitezke esaldiaren aurrean. Izan ere, iragarle izateko, dena delako testu zatiaren aurretik joan behar dute. Euskaraz, ordea, testu-antolatzaile guztiak ez dira iragarle; batzuk (menderagailu batzuek) testu zatiaren amaieran joan ohi baitira; konpletiboak, esaterako.

Beste testu-antolatzaile batzuek (markatzaileek-eta) mugikortasun handia dute esaldiaren baitan: berdin joan daitezke esaldiaren abiaburuan, erdialdean edo amaieran; eta, kasu hauetan, hiztunaren esku dago horiek non kokatu; hau da, zein neurritan izan iragarle.

Tarteki izan

Halaber, tarteki moduan erabili ohi dira testu-antolatzaile batzuk, koma artean idatziz.

Ia testu-markatzaile guztiak dira tartekiak. Salbuespenen artean daude lokailu batzuk; batik bat, **ere**.

Juntagailuak eta menderagailuak, ordea, ez dira inoiz tarteki.

TESTU-ANTOLATZAILEEN ERABILERA ESTRATEGIKOA

Azkenik, bi galdera nagusi gelditzen zaizkigu erantzuteko: 1) zertarako erabili testu-antolatzaileak era estrategikoan?, eta 2) zer aukera ematen dute testu-antolatzaileek era estrategikoan erabiltzeko?

Zertarako erabili testu-antolatzaileak era estrategikoan

Euskal testugintzaren bi arazo nagusiak konpontzeko bidea eskaintzen digu testu-antolatzaileen erabilera estrategikoak. Horrexetarako erabil daitezke.

Lehen kapituluan, hirugarren puntuan, aipatu ditugu euskal testugintzaren bi arazo nagusiak: atzerakarga eta pausaldiak markatzeko zailtasuna. Horietan, arreta berezia jarri zuten Joxe Ramon Zubimendik eta Pello Esnal-ek ere (ZUBIMENDI; ESNAL, 1993: 171-176; 189-230).

Atzerakarga arintzeko

Atzerakarga hitzak berak iradokitzen duenez, euskal testuak atzealdean —esaldiaren amaieran— eraman ohi du askotan mezua. Eta askotan —gehiegitan— ez dugu jakiten nola irakurri (nola ulertu) esaldia, harik eta amaierara iristen garen arte. Hona hemen, muturreko adibide bat (ARARTEKO, 1991: 13):

Txosten honen helburua Ertzaintzak nahiz Udaltzaingoak atxilotutakoak askatasunik gabe ordu batzuetan, berriro aske utzi edo, agiango epaia egin dakien, epaikarien esku jarri arte egoten direneko, Euskadiko udal kalabozo eta Ertzaintzaren espetxeen benetako eta lege-aldetikako egoera aurkeztea da.

Esaldia ulertzeko, ezinbestekoa da azken hiru hitzak irakurtzera (entzutera) iristea. “Egoera aurkeztea da” horretaraino iritsi arte ez dakigu zein

den “txosten honen helburua”. Ez da esaldiaren arazo bakarra, baina bai funtsezkoa.

Gehienetan, aditza azken aldean ipintzeak eragiten du esaldia ulertzeko zailtasuna edo ezina. Baina ez beti. Hona hemen, beste adibide bat, oraingo honetan bestelako aitzakiarik gabea (KINTANA, 2002: 311):

Esango nuke San Martinek, bere belaunaldiko beste idazle askoren antzera, norbere pertsonaren distira eta ospe handiagorago barik, bere herriaren kultura maila hobetu eta haren literatur premiak asetzeko xedeaz hartu duela luma, apaltasunez, inolako pretentsiorik eta hantusterik gabe, euskararen eta Euskal Herriaren helburu orokorrekin konpromiso sakona eta saihestezina harturik, idaztea herriaren zerbitzutan aritzea dela dakien intelektualaren konbentzimenduaz.

Oraingo honetan, hain zuzen, testu-antolatzaileen kokapenak zailtzen du esaldiaren ulergarritasuna.

Esango nuke San Martinek, bere belaunaldiko beste idazle askoren antzera, norbere pertsonaren distira eta ospe handiagorago barik, bere herriaren kultura maila hobetu eta haren literatur premiak asetzeko xedeaz hartu duela luma, apaltasunez, inolako pretentsiorik eta hantusterik gabe, euskararen eta Euskal Herriaren helburu orokorrekin konpromiso sakona eta saihestezina harturik, idaztea herriaren zerbitzutan aritzea dela dakien intelektualaren konbentzimenduaz.

Agian, errazago ikusiko dugu testua gaztelaniara (edo frantsesera) itzulita:

Diría que San Martín, como otros muchos escritores de su generación, sin buscar el brillo personal ni una fama mayor, ha cogido la pluma con humildad, con el objeto de mejorar el nivel cultural de su pueblo y de saciar sus necesidades literarias, sin ninguna pretensión ni vanagloria, comprometiéndose de forma profunda e ineludible con los objetivos generales de Euskal Herria, con el convencimiento del intelectual que sabe que escribir es trabajar en servicio del pueblo.

Are nabarmenago geratzen da kontua, lerroka idatzita.

Lehenik, euskaraz:

Esango nuke San Martinek, bere belaunaldiko beste idazle askoren antzera, norbere pertsonaren distira eta ospe handiagorago barik,

bere herriaren kultura maila hobetu eta haren literatur premiak asetzeko xedeaz hartu duela luma, apaltasunez, inolako pretentsiorik eta hantusterik gabe, euskararen eta Euskal Herriaren helburu orokorrekin konpromiso sakona eta saihestezina harturik, idaztea herriaren zerbitzutan aritzea dela dakien intelektualaren konbentzimen duaz.

Ondoren, gaztelaniaz:

Diría que San Martín,
como otros muchos escritores de su generación,
sin buscar el brillo personal ni una fama mayor,
 ha cogido la pluma con humildad,
con el objeto de mejorar el nivel cultural de su pueblo y de saciar sus necesidades literarias,
sin ninguna pretensión ni vanagloria,
comprometiéndose de forma profunda e ineludible con los objetivos generales de Euskal Herria,
con el convencimiento del intelectual que sabe que escribir es trabajar en servicio del pueblo.

Ondorengo bi kapituluetan, behin eta berriro topo egingo dugu arazo hori duten testuekin; eta behin eta berriro saiatu gara arazoari irtenbidea ematen, hain zuzen, testu-antolatzaileak era estrategikoan erabiliz. Bestela esanda, testu-antolatzaileak erabiliko ditugu atzerakarga arintzeko.

Pausaldiak markatzeko

Testu bat irakurtzen ari garela, beharrezkoa zaigu jakitea non egin pausaldiak, nola bereizi testu zatiak, idatzia behar bezala ulertzeko. Pausaldiak puntuazio-markez adierazten dira, normalean: puntuz, komaz, puntu eta komaz... Ez beti, hala ere. Egia da marka horiek beti adierazten dutela pausaldia. Alderantzizkoa, ordea, ez da beti hala; gerta daiteke pausaldia marka horiez ez adieraztea. Bestela esanda, ez datoz beti bat pausaldi prosodikoak eta pausaldi ortografikoak. Hori kontuan hartu gabe, idazle batzuek koma idatzi ohi dute pausaldia adierazi behar duten aldiro. Baina ez da jokabide egokia.

Beraz, nola adierazi pausaldiak, zer baliatu, puntuazio-markak erabiltzea desgokia denean? Esaterako, tartekiak balia ditzakegu; eta tartekien artean, testu-antolatzaileak.

“Jainko txikia” testuan ditugu zenbait adibide. Lehenik, tartekirik gabe (pausaldia adierazi gabe) emango ditugu esaldi batzuk:

Pozgarrizat jotzen da haurra helduaren interesgune bihurtu izana gizarteko zenbait sailetan. (2)

“Haurra kontuan hartu” “haurra bizitzako erdigune” egin bihurtzen da. (3)

Haurrak gai izan beharko du berarengan ipinitako itxaropen izugarriari erantzuteko. (4)

Haurraren gain-gainean egotea gurasoen neurosia ezkututzen duen morrontza da. Eta are ezkutuago geratzen da giro kulturalaren eraginez eta merkataritzaren presioagatik. (5)

Haurraren egiazko premia bat dator berak azaltzen duenarekin. (7)

Helduaren zeregina haurrari laguntzea da heldu bihurtzen. (12)

Esaldi horiek guztiak dira zuzenak. Baina batzuk bi aldiz irakurri behar ditugu, pausaldiak non egin jabetu ahal izateko. Testu-antolatzaileak tarteki moduan erabiliz erraz daiteke irakurketa. Honelaxe-edo:

Pozgarrizat jotzen da, gaur, haurra helduaren interesgune bihurtu izana gizarteko zenbait sailetan. (2)

“Haurra kontuan hartu”, orduan, “haurra bizitzako erdigune” egin bihurtzen da. (3)

Haurrak gai izan beharko du, jakina, berarengan ipinitako itxaropen izugarriari erantzuteko. (4)

Haurraren gain-gainean egotea, askotan, gurasoen neurosia ezkututzen duen morrontza da. Eta are ezkutuago geratzen da, gainera, giro kulturalaren eraginez eta merkataritzaren presioagatik. (5)

Haurraren egiazko premia, berriz, bat dator berak azaltzen duenarekin. (7)

Helduaren zeregina, lehen-lehenik, haurrari laguntzea da heldu bihurtzen. (12)

Dena den, tarteki horien egitekoa ez da soilik pausaldiak markatzea, artikulua bere osotasunean irakurriz ikus daitekeenez (ikus 81-86); esanahia ere bai baitute.

Zer neurritan erabil daitezkeen testu-antolatzaileak era estrategikoan

Ikusten ari garenez, badago aldea testu-antolatzaileen artean. Horregatik, hasteko, hiru sail bereizi ditugu: testu-markatzaileak, juntagailuak eta menderagailuak, eta zenbait adberbio eta esapide.

Halaber, ikusi dugu testu-antolatzaile batzuk iragarle direla eta beste batzuk ez, eta batzuk tarteki moduan erabil daitezkeela eta beste batzuk ez.

Era berean, euskal testugintzaren arazoen aldetik ere ezberdinak dira testu-antolatzaileak. Hala, batzuek, beti esaldiaren aurrean joanez, ezin ego-kiago iragartzen dute ondoren zer datorren; *nabiz (eta)* menderagailuak bezala. Beste batzuk, aldiz, atzerakargaren eragile dira; esaterako, *arren* edo *arte* menderagailuak edo *gabe* postposizioa; beti esaldiaren atzean joan behar baitute.

Azken hauen artean, ordea, hiru mota bereiz ditzakegu:

- Sinonimoak badituztenak egiteko bera edo bertsua betetzeko. Beraz, sinonimo horietaz ordezkatzuz, utz diezaiekete atzerakarga izateari. Adibidez, *nabiz (eta)* idatziz *arren* idatzi ordez.

Azken urte hauetan denon artean egiten ari garen eginahala handia eta oparoa izan *arren*, badugu oraindik ere zereginik franko.

Nahiz eta azken urte hauetan denon artean egiten ari garen eginahala handia eta oparoa izan, badugu oraindik ere zereginik franko.

- Nahiz eta sinonimorik izan ez, partikula iragarleak eraman ditzaketanak. Adibidez, *arte* menderagailuak *harik (eta)* iragarlea.

Binaka jardun beharko dugu lanean, norbera jardunaren jardunez nahikoa trebatu eta bakarka egoki lan egiteko gai izan *arte*.

Binaka jardun beharko dugu lanean, **harik eta** norbera jardunaren jardunez nahikoa trebatu eta bakarka egoki lan egiteko gai izan *arte*.

- Ez sinonimorik eta ez partikula iragarlerik ez dutenak: *gabe* postposizioa, esaterako.

Azkenik, erabilera estrategikoari begira ere badaude aldeak testu-antolatzaileen artean. Ez dute denek aukera bera eskaintzen. Batzuk behin eta berriro erabil ditzakegu edo atzerakarga arintzeko, edo pausaldiak markatzeko, edo bietarako batera. Beste batzuk, apenas. Azken batean, bi faktore motak dute horretan zerikusia. Batetik, antolatzailearen beraren nolakotasuna

dago: zein neurritan erabil daitekeen iragarle eta tarteki moduan. Bestetik, zer neurritan erabil daitekeen antolatzaile iragarle bat (sinonimoa-edo delako) beste baten ordeaz eta zer mugikortasun duen (tartekia izanik-edo).

BIBLIOGRAFIA

- AGIRRE, Jesus Maria (1991): *Euskal gramatika deskriptiboa*. Bilbo: Labayru Ikastegia [bi liburuki].
- ALONSO FOURCADE, Maria Pilar (2007): “Testuratze unitateen azterketaren hur-bilketa fraktala”, in PLAZAOLA, Itziar; ALONSO FOURCADE, Maria Pilar (edit.): *Testuak, diskurtsoak eta generoak*. Donostia: Erein.
- AREJITA, Adolfo (zuz.) (2001): *Bizkai euskeraren jarraibide liburua. Lebenengo pausuak*. Bilbo: Labayru Ikastegia - Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa.
- AREJITA, Adolfo (zuz.) (2005): *Bizkai euskeraren jarraibide liburua. Bigarren pausuak*. Bilbo: Labayru Ikastegia - Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa.
- BRONCKART, Jean-Paul (1996): *Activité langagière, textes et discours. Pour un interactionisme socio-discursif*. Lausanne - Paris: Delachaux et Niestlé. [Gaztelaniaz: *Actividad verbal, textos y discurso. Por un interaccionismo socio-discursivo*. San Sebastián de los Reyes (Madrid): Fundación Infancia y Aprendizaje. 2004.]
- CUENCA, Maria Josep (2006): *La connexió i els connectors. Perspectiva oracional i textual*. Vic: Eumo.
- EUSKALTZAINDIA: GRAMATIKA BATZORDEA (1990): *Euskal Gramatika. Leben Urratsak – III (Lokailuak)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- EUSKALTZAINDIA: GRAMATIKA BATZORDEA (1994): *Euskal Gramatika. Leben Urratsak – IV (Juntagailuak)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- EUSKALTZAINDIA: GRAMATIKA BATZORDEA (1999): *Euskal Gramatika. Leben Urratsak – V (Mendeko perpausak -1)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- EUSKALTZAINDIA: GRAMATIKA BATZORDEA (2005): *Euskal Gramatika. Leben Urratsak – VI (Mendeko perpausak -2)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA (1997): *Irakasleen euskalduntzea. HE2rako Curriculumuma (4.000 eta 5.000 atalak)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia (Euskara Zerbitzua: Glotodidaktika-lanak, 49).
- LARRINGAN, Luis Maria (1996): *Testu-antolatzaileak bi testu motatan: testu informatiboan eta argudiapen-testuan*. Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea [doktore-tesia].
- LARRINGAN, Luis Maria (2007): “Testu-motak eta testu-antolatzaileak: zer lotura?”, in PLAZAOLA, Itziar; ALONSO FOURCADE, Maria Pilar (edit.): *Testuak, diskurtsoak eta generoak*. Donostia: Erein.
- MARTÍN, María Antonia; PORTOLÉS, José (1999): “Los marcadores del discurso”, in BOSQUE, Ignacio; DEMONTE, Violeta (dir.): *Gramática descriptiva de la Lengua Española*. Madrid: Espasa Calpe: 4.051-4.213.

- ZABALA, Igone (koord.) (1996): *Testu-loturarako baliabideak: euskara teknika*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- ZOCK, Michael (1992): *Arianaren Haria edo testuaren gramatikak ama-bizkuntzan nabiz bizkuntza arrotzean pentsatutakoaren antolamendu eta adierazpenaren gisa*. Donostia: HABE: Itzulpen Saila 31.
- ZUBIMENDI, Joxe Ramon; ESNAL, Pello (1993): *Idazkera-liburua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- ZUBIRI, Ilari; ZUBIRI, Entzi (2000): *Euskal Gramatika osoa*. Bilbo: Didaktiker.

Adibideen iturriak

- ARARTEKO (1991): *Kalabozoak. Ertzantzaren eta udalen atxiloketa egoitzak. Los calabozos. Centros de detención municipales y de la Ertzantza*. Vitoria-Gasteiz: Ararteko - Euskal Herriko Unibertsitatea.
- KINTANA, Xabier (2002): “Juan San Martin Ortiz de Zarateri urrezko luma”, in *Euskera* 47: 311-313.
- ROSE, Anne (1991): “Jainko txikia”, in ESNAL, Pello (2002b): 31-32. [Jatorrizkoak: “Jainko txikia”, in *Unescoren Albistaria*, 83: 32-33; “Le petit dieu”, in *Le Courrier de l’Unesco*, 1991ko urria: 32-33; “Un pequeño dios”, in *El Correo de la Unesco*, 1991ko urria: 32-33.]

3. ZENBAIT TESTU-ANTOLATZAILE, BANAN-BANAN

Hirugarren kapitulu honetan, hamar testu-antolatzailearen aurkezpen xehegoa egingo dugu. Saiatu gara era guztietakoak aukeratzen: zahar eta berriak, oso erabiliak eta apenas erabiltzen direnak, berez testu-antolatzaile direnak eta ez direnak...

Hamar hauekin egindakoa egin daiteke, banan-banan, gainerako testu-antolatzaile guztiekin ere. Baina ez da hori lan honen asmoa. Bidea urratu besterik ez dugu egin nahi, beti ere gaitasun estrategikoa lantzea xede dugula. Erabiltzaile bakoitzaren eskuetan geratzen da bide hori ibiltzea eta zabaltzea.

Hauexek dira ondoren aurkezten ditugun hamar antolatzaileak:

Baizik

Ezen

Hala ere

Harik eta... -en arte

Izan ere

Nabiz (eta)...

Nola (zeren)... -en

-rik

Segun (eta)... -en

Seinale

BAIZIK	<ul style="list-style-type: none"> • Baizik, berez, juntagailu aurkaria izan daiteke: <i>Ez da alaba jaiki, ama baizik</i> (EGLU IV: 196-204); edo juntagailu murriztailea: <i>Ama baizik ez dut ikusi</i> (EGLU IV: 216-219). • Hemen, aurkaria landuko dugu soilik.
---------------	--

- **Baizik** juntagailu aurkaria denean, perpausaren lehen osagaia ezezka joaten da eta bigarrena baiezkua. Osagaien kontrastea adierazten du.

Bigarren osagaiaren amaieran nahiz hasieran koka daiteke.

Ez da alaba jaiki, ama baizik.
Ez da alaba jaiki, baizik ama.

Koma batez bereizi ohi dira bi osagaiak.

- **Baizik** hasieran joateko aukera ondo dator bigarren osagaia luzea denean. **Baizik eta** forma hartuz ere erabili ohi da (*zeren eta, nabiz eta bezala*), baina *eta* horrek ez dio ezer eranstean esanahiari.

Adibidez, Anatole France idazlearen aipu hau dakar *Unescoren Albistariak* (UN: 36):

Munduan bakea izango da noizbait nagusi, baina ez gizakia ondu delako (ez dugu horrelakorik espero), sortuko diren egoera berriek, zientzia berriek, premia ekonomiko berriek, nabitatez, bakean bizitzera behartuko gaituztelako baizik.

Baizik atzean joateak zaildu egiten du irakurketa. Bigarren osagaiaren aurrean jarriz konpon daiteke arazoak.

Munduan bakea izango da noizbait nagusi, baina ez gizakia ondu delako (ez dugu horrelakorik espero), baizik (eta) sortuko diren egoera berriek, zientzia berriek, premia ekonomiko berriek, nabitatez, bakean bizitzera behartuko gaituztelako.

- **Baizik** honen ordezt, bizkaierazko **baino** eta **ezpada** erabili ohi dira: **baino**, bigarren osagaiaren amaieran; eta **ezpada**, hasieran.

Forma horiek erabiliz, honela itzul daiteke idazle frantsesaren pasarte:

Bigarren osagaia luzea denean, **ezpada** erabiliz irakurtzeko errazagoa egiten da pasarte.

*Ez da alaba jaiki, ama baino.
Ez da alaba jaiki, ezpada ama.*

Munduan bakea izango da noizbait nagusi, baina ez gizakia ondu izanagatik (ez dugu borrelakorik espero), sortuko diren egoera berriek, zientzia berriek, premia ekonomiko berriek, nabitaez, bakean bizitzera behartuko gaituztelako baino.

Munduan bakea izango da noizbait nagusi, baina ez gizakia ondu izanagatik (ez dugu borrelakorik espero), ezpada sortuko diren egoera berriek, zientzia berriek, premia ekonomiko berriek, nabitaez, bakean bizitzera behartuko gaituztelako.

EZEN	<ul style="list-style-type: none"> • (EGLU V: 62-63). • Era berean: <i>eze, ezi, ze</i>.
------	--

- *Ezen* testu-antolatzaileaz, honela mintzo da EGLU V (62-63), *-eLA* menderagailua duten adierazpen-perpau osagarriak hizpide:

Adierazpen-perpau osagarri hauek egiteko aski da, noski, eLA menderagailua erabiltzea eta horrelaxe egiten dira maizenik, beste ezer erantsi gabe. Aukeran dute, ordea, horrez gain, perpausaren hasiera markatzeko balio duen ezen lokailua hartzea.

Egiturari dagokionez kontuan izan behar da lokailu hau perpau osagarriaren lehen buruan kokatzen dela beti, mugarri gisa, hura non hasten den erakutsiz.

Eta beste hau ere eranstean du ondoren:

Lokailu honek erabilera ugaria izan du tradizioan, joan den mendea arte-edo behintzat [XIX. mendea arte], eta eze / ezi / ze aldaeretan ere ageri da.

Zehazten du, gainera, erabilera zabaldua izan duela ekialdean, Lapurdiko eta Nafarroa Behereko idazleen artean, XVI. mendetik XIX. mendeko ia azken urteak arte; eta, besteak beste, Axularren adibide bat dakar. Hau idatzi baitzuen, hegaztiak ura edateko eraz ari zela:

Eta badirudi ezen naturalezak berak erakutsirik egiten dutela bala.

Eta esaten du mendebaldean ere erabili zutela; batik bat, Iztuetak eta Lardizabalek, XIX. mendean. Esaterako, Iztuetak:

Uste det nik ezen Idiazabalko mugapean bakarrik jaiotzen dirala kopuru...

- Gaur ere oso erabilgarria izan daiteke *ezen* antolatzailea testu idatzi-tan, batez ere perpau osagarria luzea denean.

Esaterako, honela idatzi du Imanol Zurutuzak (ZI: 47)

Eta uste du ezen, nabiz eta hainbeste zorigaiztoren ondoren Joben artaldeak berriro etorri ziren bamalau mila arditara, sei mila gamelutara, mila idi-uztarritarra eta mila asto urrixatara eta, ororen gainetik, beste zazpi seme eta beste hiru alaba izan zituen eta bizi izan zen ehun eta berrogei urtez eta ikusi zituen bere seme-alaben seme-alabak laugarren belauneraino eta bil zen zabarturik eta egunez betea, ez zuela asko denborarik izan aurreko zazpi seme eta hiru alaben heriotzak sortutako nabigabea berdintzeko.

Gutxitan ikusten dira, euskaraz, Imanol Zurutuzaren hau bezalako esaldi luzeak. Bi esaldik osatzen dute. Txikia da bat: lehen lau hitzez eta azkeneko lerroz osatua; luzea da bestea: tarteki luzea, *nabiz eta* antolatzailea buru duela.

Nabiz eta antolatzaileari esker dakigu tarteki bat hasten dela berarekin. Eta tartekia amaitu arte, horrexen eragina dute aditzek, nahiz eta forman ageri ez. Eragina nabarmenago azalduko litzateke, tartekia orainaldian egoterra:

Nabiz eta hainbeste zorigaiztoren ondoren Joben artaldeak berriro etorri **diren** bamalau mila arditara, sei mila gamelutara, mila idi-uztarritarra eta mila asto urrixatara eta, ororen gainetik, beste zazpi seme eta beste hiru alaba izan **dituen** eta bizi izan **den** ehun eta berrogei urtez eta ikusi **dituen** bere seme-alaben seme-alabak laugarren belauneraino eta bil **den** zabarturik eta egunez betea.

Horren tarteki luzea irakurriz, erraz ahaztuko genuke zer espero dugun ondoren, baldin eta hasierako *ezen* antolatzaileak iragarri izan ez baligu.

HALA ERE	<ul style="list-style-type: none"> • Lokailu aurkaritzakoa (EGLU III: 121-126). • <i>Halere</i> forma ere har dezake.
-----------------	---

- Normalean, esaldiaren hasieran joan ohi da.

*Aurtengo negua luze doa; **bala ere**, izan da negu gogorragorik.*

Baina esaldi barruan ere joan daiteke.

*Aurtengo negua luze doa; izan da, **bala ere**, negu gogorragorik.*

Baita amaieran ere.

*Aurtengo negua luze doa; izan da negu gogorragorik, **bala ere**.*

Koma artean idazten da.

- Mugikortasun horri esker, era estrategikoan erabiltzeko aukera polita ematen du, segun eta zer lortu nahi den.

Esaldiaren amaieran joan daiteke. Adibidez (AX: 242):

*Mugagabearen aldeko joera orokor honek XVII. mendean bertan baditu zenbait salbuespen, **bala ere**.*

Baina ez da ahaztu behar batez ere lokailu dela; lotzea duela eginkizun. Eta, lotura hori argi adieraztearren, komeni da lokailua aurrean ipintzea.

***Hala ere**, mugagabearen aldeko joera orokor honek XVII. mendean bertan baditu zenbait salbuespen.*

Era berean, ongi etor daiteke bai subjektuaren eta predikatuaren arteko pausaldi prosodikoa adierazteko, nahiz eta horrela zerbait ilundu lotura; bai aditzaren eta ondorengo osagarriaren arteko pausaldi prosodikoa adierazteko, nahiz eta esaldia iluna geratu.

*Mugagabearen aldeko joera orokor honek, **bala ere**, XVII. mendean bertan baditu zenbait salbuespen.*

*Mugagabearen aldeko joera orokor honek XVII. mendean bertan baditu, **bala ere**, zenbait salbuespen.*

<p>HARIK ETA ...EN ARTE</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Zenbait testu-antolatzailek (oso gutxik) iragarleren bat ere eraman dezake aurretik. Esaterako, <i>-eN arte</i> denborazko menderatzaileak <i>barik eta</i> iragarlea (EGLU VI: 110).
---------------------------------	---

- *Arte*, normalean, bakarrik joan ohi da. Eta ez du irakurtzeko eragozpenik sortzen mendeko esaldia laburra denean. Luzea denean, ordea, irakurleak ez du jakingo testua nola irakurri, harik eta halakoren batean *arte* antolatzaileira iritsi arte. Horrelakoetan, laguntza handikoa da *barik eta* iragarlea mendeko esaldien hasieran jartzea.
- Esaterako, laguntza hau baliatu zuen Imanol Zurutuzak honako pasarte honetan (ZI: 63):

Laguntza baliatu ezean, bi aldiz irakurri beharko litzateke pasarte, hau bezala: (IV: 125).

Harik eta erabiliz erraztu dute egileek irakurketa.

- *Harik eta... arte* honetaz esandakoak berdin balio du beste zenbait bikotez ere: *baldin eta... ba-, ea... -eN*, *baita... ere, ezta... ere, behin... -eZ gero, segun (eta)... -eN*.
- Batzuetan, ordea, iragarlea ez da iragarle soila izaten. Enfatiko bihurtzen da. Adib: *noiz eta... -eAN*, *non eta... -eAN*.

Dakigunez, bizitzaren laburtasunaz hain argiro idatzi zuen gizon hura [Seneka] luzaz bizi izan zen mundu honetan, barik eta Neron enperadoreak, Kaio Kalpurnio Pisonen antolatutako konspirazioan esku hartu izanaz akusaturik, bere buruaz beste egiteko agindua eman zion arte, Kristo ondoko 65. urtean.

Gutxieneko aprobetxamendua lortzen ez duen langileari IVAPek ez dio ondorengo ikasturteetarako lanorduz kanpoko ikasketarik onartuko, langileak bere kabuz 11. oinarrrian ezarritako gutxieneko aprobetxamendua lortu arte.

Gutxieneko aprobetxamendua lortzen ez duen langileari IVAPek ez dio ondorengo ikasturteetarako lanorduz kanpoko ikasketarik onartuko, barik eta langileak bere kabuz 11. oinarrrian ezarritako gutxieneko aprobetxamendua lortu arte.

IZAN ERE	• Lokailu kausazkoa (EGLU III: 192-195).
----------	--

- Normalean, esaldiaren hasieran joan ohi da.

Baina esaldi barruan ere joan daiteke.

Baita amaieran ere.

Koma artean idazten da normalean.

- Mugikortasun horri esker, era estrategikoan erabiltzeko aukera polita ematen du, segun eta zer lortu nahi den.
- Hala ere, lehenik eta behin lokailu da *izan ere*. Eta, lokailu denez, oso baliabide erabilgarria da idatzi egoiak sortzeko.

Besteak beste, *bait-* aurrizki kausazkoaren egiteko bera izan dezake. Baina abantaila batekin. *Izan ere* esaldiaren hasieran jar daiteke, datorrenaren iragarle; *bait-*, berriz, atzerago joan ohi da (eta, gainera, adizkiari lotuta; hau da, ez *izan ere* bezain agerian).

Esaterako, Xabier Letek pasarte hau idatzi zuen Lizardi poetari buruz (LX, 42):

Oso luzea da hirugarren esaldia. Eta ez dakigu nola irakurri, harik eta azkeneko hitzera iritsi arte.

Hemen kontuz ibili beharra dago beti; izan ere, ez dakigu zer ekar diezagukeen geroak.

Hemen kontuz ibili beharra dago beti; ez dakigu, izan ere, zer ekar diezagukeen geroak.

Hemen kontuz ibili beharra dago beti; ez dakigu zer ekar diezagukeen geroak, izan ere.

Lizardik, gerla baino hiru urte lehenago hil baitzen, ez zuen hondamendi ikaragarri bura ezagutu. Eta, egia esan, bihotzez pozten naiz. Lizardi bezalako poeta bikain bat hain gazterik hiltzea alde batetik penagarri bada ere, harentzat, hain gizon zuzen eta fina zen harentzat, handik urte gutitara gertatu behar zuen desegite ikaragarria are penagarriago eta minberagarriago izan baitzitekeen.

Baitzitekeen horren *bait-* aurrizkiak adierazten digu kausazkoa dela esaldia.

Baina irakurlearen lana asko erraz daiteke, giltza aurretik emanaz. Hain zuzen, *izan ere* ipiniz esaldiaren hasieran.

- *Izan ere* lokailuak, zenbat eta lehenago kokatu esaldian, hainbat eta hobeto beteko du bere lokailu-egitekkoa.

Baina, mugikortasun handia izanik; esaldiaren hasieran ez ezik, barnean ere erabil daiteke eta amaieran ere bai.

Esaldiaren barnean erabiliz gero, ondo etor daiteke pausaldi prosodikoak adierazteko. Adibidez, subjektuaren eta predikatuaren artekoa.

Edo aditzaren eta ondorengo osagarriaren artekoa.

Adibide horietan, bi egiteko betetzen ditu *izan ere* lokailuak: berez dagokiona –esaldiak lotu– eta, bide batez, pausaldi prosodikoa adierazi.

Beti ere, idazlearen esku dago zenbat atzeratu lokailuaren kokapena; izan ere, ilunegia gerta daiteke lotura, atzeegi kokatuz gero.

*Lizardik, gerla baino biru urte lehenago hil baitzen, ez zuen hondamendi ikaragarri bura ezagutu. Eta, egia esan, bihotzez pozten naiz. **Izan ere**, Lizardi bezalako poeta bikain bat bain gazterik hiltzea alde batetik penagarri bada ere, barentzat, hain gizon zuzen eta fina zen barentzat, handik urte gutitara gertatu behar zuen desegite ikaragarria are penagarriago eta minberagarriago izan zitekeen.*

*Joan den asteko gertaera hori, **izan ere**, inork gutxik aurreikusitako soka luzearen hasiera izan daiteke.*

*Gertaera horrek sor ditzake, **izan ere**, hiritarren artean gutxitan sumatu obi diren bezalako sentimendu nabasiak.*

NAHIZ (ETA)...	<ul style="list-style-type: none"> • Kontzesio-balioa du (EGLU VI: 226; 244-246). • <i>Nabiz (eta)...</i> <i>-eN</i> eta <i>nabiz (eta)...</i> <i>aditz-partizipioa</i> formak erabili ohi dira usuen. <p><i>Nabiz eta lagun asko izan, ez naiz inora joango oporretan.</i> <i>Nabiz eta diru asko dudan, ez naiz inora joango oporretan.</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Beti, mendeko esaldiaren aurrean joan ohi da.
-------------------	--

- Besteak beste, *nabiz (eta)...* *-eN* eta *nabiz (eta)...* *aditz-partizipioa* formak erabili ohi dira usuen.

Beti, mendeko esaldiaren aurrean joan ohi da.

- Beti mendeko esaldiaren aurrean joateak bihurtzen du *nabiz (eta)...* baliabide ezin egokiagoa, *ba-... ere* kontzesiozkoaren aldean; hau atzean joaten baita.

Esaterako, Xabier Letek honela dio Lizardi poetaz, (LX: 42) ikusi berri dugenez:

Nabiz (eta)... idatz daiteke kontzesiozko *bada ere* formaren ordeaz, irakurketa erraztuz:

Lizardik, gerla baino hiru urte lehenago hil baitzen, ez zuen hondamendi ikaragarri bura ezagutu. Eta, egia esan, bibotzez pozten naiz. Lizardi bezalako poeta bikain bat hain gazterik hiltzea alde batetik penagarria bada ere, harentzat, hain gizon zuzen eta fina zen harentzat, handik urte gutitara gertatu behar zuen desegite ikaragarria are penagarriago eta minberagarriago izan baitzitekeen.

Lizardik, gerla baino hiru urte lehenago hil baitzen, ez zuen hondamendi ikaragarri bura ezagutu. Eta, egia esan, bibotzez pozten naiz. Nabiz eta Lizardi bezalako poeta bikain bat hain gazterik hiltzea alde batetik penagarria den, harentzat, hain gizon zuzen eta fina zen harentzat, handik urte gutitara gertatu behar zuen desegite ikaragarria are penagarriago eta minberagarriago izan baitzitekeen.

- Batera baliatuz *izan ere* eta *nabiz eta* testu-antolatzaileak, argiago gertatzen da pasarteak:

*Lizardik, gerla baino hiru urte lehenago hil baitzen, ez zuen hondamendi ikaragarri hura ezagutu. Eta, egia esan, bibotzez pozten naiz. **Izan ere, nabiz eta** Lizardi bezalako poeta bikain bat hain gazterik hiltzea alde batetik penagarri den, harentzat, hain gizon zuzen eta fina zen harentzat, handik urte gutitara gertatu behar zuen desegite ikaragarria are penagarriago eta minberagarriago izan zitekeen.*

Eta are gehiago: aurrera dezagun *izan zitekeen* aditza.

*Lizardik, gerla baino hiru urte lehenago hil baitzen, ez zuen hondamendi ikaragarri hura ezagutu. Eta, egia esan, bibotzez pozten naiz. **Izan ere, nabiz eta** Lizardi bezalako poeta bikain bat hain gazterik hiltzea alde batetik penagarri den, harentzat, hain gizon zuzen eta fina zen harentzat, are penagarriago eta minberagarriago **izan zitekeen** handik urte gutitara gertatu behar zuen desegite ikaragarria.*

Estrategien erabileraz jabetzeko, adibide egokia da, inola ere, hiru erabakiren ondorio den azken pasarte hori.

NOLA (ZEREN)... -EN	<ul style="list-style-type: none"> • Adierazpen-perpau osagarri batzuetan erabili ohi da. • Bi elementu ditu: hasieran, galde-hitza (<i>nola</i>; bizkaieraz, <i>zelan</i>); eta amaieran, <i>-eN</i> menderagailua (EGLU V: 77). • “Kontakizunetan-eta erabiltzen da maiz egitura hori [<i>nola (zeren)... -eN</i>], <i>esan</i>, <i>kontatu</i>, <i>entzun</i> eta horrelako gobernatzaileekin. Baina baita [...] <i>ikusi</i>, <i>gogoratu</i>, <i>jakin</i> eta “ezagutza” adierazten duten gobernatzaileekin ere” (EGLU V: 77).
---------------------------	---

- Batzuek halako erreparo bat dute *nola* edo *zelan* testu-antolatzaileak erabiltzeko, eta hauen ordeztu *-eLA* menderagailua erabili ohi dute. Biak dira zuzenak. Eta biak erabili ohi dira tradizioan.

Oso gogoan zuen *tumore bat aurkitu ziotela buruan*.

- Idazlearen esku geratzen da noiz erabili *nola (zeren)... -eN* eta noiz *-eLA*.

Oso gogoan zuen *nola tumore bat aurkitu zioten buruan*.

Idazleak, erabakia hartzeko orduan, kontuan izan beharko ditu, besteak beste, testu-hartzailea (irakurlearen ohiturak) eta testuaren zer-nolakoa (esaldiaren luze-laburra). Izan ere, *-eLA* oso atzean joateak zaildu egiten du irakurketa, baina gaurko irakurlea ez dago horren ohituta *nola* antolatzailearen erabilera honetara.

- Adibidez, honela idatzi du Imanol Zurutuzak (ZI, 57):

Beti izan zuen gogoan emakumeak *lehen-gusuarena*, geroztik urte dezente joan baziren ere. Oso gogoan zuen, eta biziagotu baino ez zitzaion egin oroitzapen mikatz bura erresonantzia magnetikoan *tumore bat ageri zela esan ziotenean*. Oso gogoan zuen *nola tumore bat aurkitu zioten buruan*, *nola* bi bider ere egin zioten ebakuntza, *nola* umorea erabat garrastu zitzaion, *nola* azkenerako ezertarako gauza ez zela geratu zen, eta *nola* joan zen azkenean, *nola* eraman zuten estatistikek betiko, beren atzapar zorrotzetan.

-RIK	<ul style="list-style-type: none"> • Atzizkiak ere izan daitezke testu-antolatzaile.
------	---

- Atzizkiak izanik, hitz baten amaieran doaz itsatsita. Eta honek zaildu egiten du irakurketa; ez baitira hitz solteak bezain agerian gelditzen.
- Normalean, esaldiaren hasieran, erdialdean edo amaieran joan daitezke. Gramatikaz, hiruretan egon daitezke zuzen.

Gaurko prosan, askoz ere gehiagotan erabiltzen dira amaieran. Lehengoan, ordea, sarritan ikusten ziren hasieran.

Berez, hasieran joateak erraztu egiten du irakurketa, batez ere esaldia luzea denean. Baina gaurko irakurlea bestela ohituta dago.

Idazleak erabaki beharko du zer egin aldiro, zenbait aldagai kontuan hartuta: esaldiaren luze-laburra, irakurlearen ohiturak eta ohiturak aldatzeko malgutasuna, eta abar.

Esaterako, bi aukerak baliatu ditu Anjel Lertxundi idazleak, honako bi pasarte hauetan (LA: 72, 82):

Bi esaldietan darabil Lertxundik *ikusirik* testu-antolatzailea. Baina, lehenengoan, esaldi-zatiaren amaieran; eta, bigarrean, hasieran.

- *Ikusirik* honetaz esandakoak berdina balio du *-rIK* aditz-forma guztietarako.

Eta neure burua aitaren eta amaren artean erabakitzeko trantzean ikusirik, pianoaren aurrean arintzen nuen egonezina.

Hildakoak erraietan utzi dizun arrastoak, berriz, barritu egiten zaitu, ikusirik nola erasan dizun sekuentzia azkar-azkar batek

SEGUN (ETA)... -EN	<ul style="list-style-type: none"> • Zenbait testu-antolatzailek (oso gutxik) iragarleren bat ere eraman lezake aurretik. Esaterako, <i>-eN</i> menderatzaileak <i>segun (eta)</i> iragarlea.
-----------------------	--

- *Segun (eta)* iragarlea, nahiz eta ahozkoan maiz erabili, apenas erabiltzen den idatziz; erdal forma delako, noski. Horren ordez, *-eN* forma erabili ohi da soilik. Esaterako:

Hori ere polita da; nola begiratzen zaion.

- Mendeko esaldia laburra denean, *-eN* soilak ez du irakurtzeko eragozpen handirik sortzen. Luzea denean, ordea, irakurleak ez daki testua nola irakurri, harik eta *-eN* antolatzaileira iritsi arte; eta orduan ere hor nonbait. Horregatik, laguntza handikoa da *segun (eta)* iragarlea.

Hori ere polita da, zer ikuspegitik begiratzen zaion eta zer-nolako irizpideak erabiltzen diren epaitzeko.

Hori ere polita da, segun eta zer ikuspegitik begiratzen zaion eta zer-nolako irizpideak erabiltzen diren epaitzeko.

Beraz, *segun (eta)*... *-eN* testu-antolatzailea, ahoz ez ezik, erabilgarria da idatziz ere, batik bat luzea denean esaldia. Esaterako, honela idatzia du Mikel Zalbidek (ZM: 2):

Azalpen biak dira posible, segun gauzak nola esplikatu nahi diren.

SEINALE	<ul style="list-style-type: none"> • <i>Seinale</i>, berez, ez da testu-antolatzailea; eta esaldiaren hasieran nahiz atzean joan daiteke. Hain zuzen, aurrean doanean bete lezake testu-antolatzailearen funtzioa.
---------	---

- *Seinale*, berez, ez da testu-antolatzailea. Baina funtzio hori bete lezake, esaldi baten aurrean ipiniz gero.

Nahiz eta ahoz erabili normalean, idatziz ere erabil daiteke.

Parekoa du gaztelaniazko *señal de que*.

-ela atzizkia eramaten du aditzak.

- Adibidez, honela idazten du Pello Salaburuk, Koldo Mitxelena gorai-patuz (SP: 117):

Seinalek, berez, ez du beharrezkoa ondorengo koma. Kasu honetan, “seinale bat” (dena segidan) irakurtzea saihesteko erabili du Salaburuk.

- Aditzaren atzean ere joan daiteke *seinale*. Baina orduan, atzean doanez, ez du betetzen testu-antolatzailearen funtzioa.

Honelakoetan, *-en* atzizkia eraman ohi du aditzak. Adibidez (AJ: 139):

Orain, egin dezagun proba, *seinale* testu-antolatzaile bihurtuz.

Errazago irakurtzen da.

*Egun, askoren ezintasuna euskara izan nahi omen duen bizkuntza trakets baten atzean ezkutatu nahi den bitartean, Mitxelenaren lanak hor ditugu lekuko, **seinale**, bat ona denean edozein bizkuntzatan idazteko arazorik ez duela.*

*Jerusalemen, gaixo asko joaten ziren Betesdako piztinara, sendatzeko itxaropenez. [...] Betesdako piztina ondoan bertan, Eskulapio jainko sendagilearen estatua bat aurkitu da, jainko haren santutegia edo sendalekua zegoen **seinale**.*

*Jerusalemen, gaixo asko joaten ziren Betesdako piztinara, sendatzeko itxaropenez. [...] Betesdako piztina ondoan bertan, Eskulapio jainko sendagilearen estatua bat aurkitu da, **seinale** jainko haren santutegia edo sendalekua zegoela.*

BIBLIOGRAFIA

EUSKALTZAINDIA (1990): *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak - III (Lokailuak)*. Bilbo: Euskaltzaindia.

EUSKALTZAINDIA (1994): *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak - IV*. Bilbo: Euskaltzaindia.

EUSKALTZAINDIA (1999): *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak - V*. Bilbo: Euskaltzaindia.

EUSKALTZAINDIA (2005): *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak - VI*. Bilbo: Euskaltzaindia.

Adibideen iturriak

AX: ALBERDI, Xabier; GARCÍA, Julio (1998): “Zein (...) bait- / - erlatiboa: Literatura-Tradizioa”, in *Linguae Fontes Vasconum* XX: 235-266.

AJ: ARREGI, Joxe (2004): *Nazareteko Jesus*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

IV: IVAP (2005): *IVAPeko estilo-liburua*. Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioa.

LA: LERTXUNDI, Anjel (2002): *Zorion perfektua*. Irun: Alberdania.

LX: LETE, Xabier (1974): “Xabier Lizardi edo poesia gailen”, in *Xabier Lizardi, olerkari eta prosista*. Oñati: Jakin.

SP: SALABURU, Pello (1987): “Koldo Mitxelena, hizkuntzalari”, in *K. Mitxelena. Gizona eta Hizkuntza*, Egan, ale berezia (3-6): 117.

UN: UNESCOREN ALBISTARIA (1998): “Afrika eta mundua”, in 110. zenb. (1998ko uztaile-abuztua-iraila): 36.

ZM: ZALBIDE, Mikel (2003): “Hendai-Hondarribietako biltzarrak: XX. mendeko hizkuntza plangintzaren iturburu”, in *Euskaltzaleen Biltzarraren Mendeurrena*. Bilbo: Sabino Arana Kultur Elkargoa: 1-134.

ZI: ZURUTUZA, Imanol (2002): *Errautsera artekougarra*. Donostia: Elkarlanean.

4. NOLA IKASI TESTU-ANTOLATZAILEAK ERA ESTRATEGIKOAN ERABILTZEN

Ikusia dugu aurreko kapituluetan zer diren testu-antolatzaileak, zer egin-kizun duten testuan, eta zertarako eta nola erabil daitezkeen era estrategikoan.

Baina nola ikasi erabiltzen? Funtsezko galdera honi erantzuten saiatuko gara laugarren eta hondar kapitulu honetan.

Azken batean, norberak ikasi behar du era estrategikoan erabiltzen bai testu-antolatzaileak, bai gainerako hizkuntza-baliabideak: hitzen ordena, puntuazio-markak... Eta erabiltzen, erabiliz ikasten da. Ez dago beste biderik. Izan ere, ez gaude arauen munduan; estrategien munduan baizik.

Eta erabili ahala sortuko zaizkigu galdera berriak. Eta beste erabiltzaileei –hiztun nahiz idazle– erreparatzen ipiniko gara orduan, ea nola baliatzen dituzten testu-antolatzaileak.

Hori kontuan izanik, bi ataletan banatu dugu laugarren kapitulua. Lehenengoan, besteren erabileran jarriko dugu arreta; bigarrenetan, norberaren erabileran.

IRAKURRIZ ETA ENTZUNEZ

Hiztun guztiok erabiltzen ditugu testu-antolatzaileak, ahoz eta idatziz, nahiz eta oharkabeen erabili gehienetan. Eta, oharkabeko erabilera hobetu nahi izanez gero, erabiltzaile onei begira jarri ohi gara, ikusteko eta ikasteko. Gainera, eskuliburu eta hiztegiatarara ere jo ohi dugu.

Adibidez

Gure lehen idazleek ahalegin berezia egin behar izan zuten, euskal prosa sortzen ari ziren neurrian; hau da, ahozko euskaratik euskara idatzia sortu behar zuten heinean. Aurrean zituzten, bai hizkuntza klasikoetan garatutako prosa, bai aldameneko hizkuntzetan moldatzen ari zena. Idazle horiek eredu-garri ditugu gaur ere. Horien idatzietatik berreskura ditzakegu, esaterako, gaur zokoratuak-edo ditugun antolatzaileak (**zeren** bezalakoak), edo gaur bestela erabiltzen ditugunak (**ordea** bezalakoak):

O heuskara, lauda ezak Garaziko herria,
zeren hantik ukhen baituk behar duian thornuia.
Lehenago hi baitinzan lengoajetan azkena,
orai, **aldiz**, izanen iz orotako lehena.

Bernad Etxepare

Neure iaun maitea, ioan zatzaizkit lurretik, **baiña** ez gogotik, eta ez bihotzetik. Heldu nintzen. Ezterautazu iguriki. **Ordea** eneak dira faltak, enea da hobena. Gerotik gerora ibili naiz, eta hala dabillanari gerthatzen ohi zaikana egin zait niri ere.

Pedro Axular

XX. mendean ere izan ditugu, halaber, idazle eredugarriak: gaurko euskal prosaren beharrak ikusi eta testu-antolatzaileak maisuki erabili dituztenak era estrategikoan.

Ganera esan deuste ganora pixkatxu bat ez daukiela gure izparringi horretan idatzi ohi doguzan idazkiak, danak dirala herrietako izparrak eta bape literatura barik eginak. **Horra ba, esate baterako**, Beketzeko *Petornilla* ezkondu dala Frantzisko *Samaluzegaz*, eta gauerako afaritarako esne-zopa bakarrik euki dabela, **eta** hau jan ondoren koltzara joan eta artaburuak zuritzen ekin deusiela, **eta** holakoak izpar ben-benak ipini beharrean ipiniko bagenduz, gure izparringi horregaitik txakurrenak esango leukiez horreek morroioak, **eta** barriz izpar hori erderaz idatzita ipinten badau Madrileko Heraldo edo besteren batek, orduan ederki, **ezta?**

Kirikiño

Gaur, haizerrota arin-arinak eta merkeak dagoz, haize apurtxo batek eragiten deutenak. Horreetariko erreskada bat ipiniko balitz mendi luze baten ganean, **esaterako**, Artxanda mendian Deustuko Berriztik hasi eta Galdakao aldeko Gangureneraino, alde guztietako haizeak eragingo leuskie, **nahiz** iparrekoak, **nahiz** mendebalak, **nahiz** gailegoak, **nahiz** hegoak, **nahiz** Nafarroakoak; eta danen artean zenbat tximist-indar sortuko leukie! Itzela!

Kirikiño

Dena dela, hala ere, ijitoek badituzte eta badakizkite mundu honetakoek ez dituzten eta **zer** diren ez dakizkiten ondasun batzuk. Zeintzuk? Hara, **adibidez**, batzuk: Askatasuna (zorioneko askatasuna), buruko garbitasuna (kanpotik lohi, barrutik garbi), elkar maitasuna (**nahiz ta** haserretu batzuetan), amodio belarrak, haize eder osasuntsua, mozorrorik gabe ibiltzeko aukera, eta abar.

Mikel Zarate

Edozeinek prentsa dezake, **zein ere** ezjakina den gai hauetan, nekez lortuko dugula argibiderik antzina-antzinako gizaki **zein** gizaideen kaskezurretan horien jabeek izan zezaketen hizketarako gaitasunaz. **Izan ere**, askosaz ere gogorragoa da burezurra barrenago muin-azalik gogorrena baino. Nekez utziko du, **beraz**, biguinenak marka beste hartan, **baldin eta** inoiz irakasten ziguten Mohs-en mailakatze hark funtsik badu.

Koldo Mitxelena

Duela hamabost urteko kezak eta asmoak ez daude hain zaharkiturik **non eta** besterik gabe zokora daitezkeen.

Koldo Mitxelena

Damuz, gizonoi gaitz egiten zaigu auzi baten aitzin-gibel guztiak batera gogoan edukitzea. Ezkerrera begiratzen denean eskuinean dagoena ezin ikus. **Haatik**, alderdi guztiak hartu behar dira kontuan.

Luis Villasante

Baina, testu idatziak ez ezik, eskueran ditugu ahozko jardun eredugarriak ere.

–Gure berbetea polito ikasi dozu, baina hemengo gauza askoren barri ez zenduan izango lehenago, **ezta?**

–Hori dinozu? **Berbarako**, aizkorea zer zan ondo nekian nik, erabilten aitak txikitatik irakatsi eustalako. Aizkolariak zer zirean, **barriz**, ez nekian, **egia esan**.

Eusebio Erkiaga

Oin, **lehen be**, Santa Agedaren bisitzatik aparte, egiten ziran beste kanta batzuk. **Esate baterako**, aginaldoa be alosokoa izan daiten, **ba**, zelango etxea halango bertsoa botaten eben hasikeran. **Jakina**, etxe bako-txean nor zan estimaduen, ba harexeri. **Batzuetan**, etxeko usabari, beste batzuetan etxeko andreari, edo egon ezketino ezkon edadeko alabeari, edo semeari, edo umeari. Agintariei be bai, alkateari, edo abadeari.

Juan Manuel Etxebarria

–Eta Herriko Eskolan be erdera hutsean?

–**Jakina!** Gerrosteko urteak urte onak ziran, ba, **izan be**, eskola barruan euskera egiteko! Bat izan ezik –geure herriko semea zan D. Nikolas Zuazo–, beste maisu guztiak erdaldun garbiak izan nituan; bai izatez eta bai euren gogoz, erdaldunak eta erdalzaleak. **Hori holan dala**, eta legeak be horixe zorrotz aginduta eukalako, eskola barruan ez genduan guk euskeraz ezer ikasten, ezta berbatxu bat be euskeraz entzuten. Gogoan daukat, **esate baterako**, zapatuetan errosarioa errezaten genduala eskolan, **baina** haxe be erderaz beti. Kristinau Ikasbidea (“dotriña”) be eskola barruan dan-dana erdera hutsean.

Karmelo Etxenagusia

Antzeko testu asko –eta osoagoak– aurki ditzakegu, besteak beste, *Ira-kurbideak* liburuan (ZUBIMENDI, ESNAL, 1997). Irakurgai klasikoak eta herri-literaturakoak dira, hogeita zortzi egile dituztenak: Txomin Agirre, Agirre Asteasukoa, Bartolo Aierbe, Akordagoitia, Toribio Alzaga, Julian Alustiza, Arintzondo, Joxe Arratibel, Jose Artetxe, Ataño, Inazio Mari Atxukarro, Axular, Resurreccion Maria Azkue, Joxe Migel Barandiaran, Mikela Elizegi, Jean Etxepare medikua, Jean Hiriart-Urruty, Jon Andoni Irazusta, Juan Inazio Iztueta, Kirikiño, Antonio Maria Labaien, Manuel Lasarte, Lauaxeta, Lizardi, Juan Antonio Mogel, Orixe, Basilio Pujana eta Uztapide.

Horrelako testu idatzi nahiz ahozkoak irakurriz eta entzunez, eta klasiko-en eta idazle onenen prosari erreparatuz, ikas dezakegu testu-antolatzaileak

era estrategikoan erabiltzen eta testu egokiak sortzen, edozein izanik ere baliatzen dugun generoa edo lantzen dugun arloa.

LITERATURA

Jon Kapagorri Euskal Herriko hirugarren zirkonkripzioko diputadu berri hautatu zuten, euskaldunek. Ibarnegaraiez geroztik, beti, alderdi bereko legebiltzarkideak Pariseko parlamentura igorriak izan ziren. **Erran nahi baita** «xuriak». **Ordea**, eskuak ez zituzten berdin xuri.

Itxaro Borda

TESTU JURIDIKOAK

Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 33. artikuluan aipatzen dituen entitateak, **baldin eta** beren onura partikularrerako gozatu, erabili edo aprobetxatzen badute modu berezian udal jabari publikoa, uztailearen 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 20.2 artikuluan jasotzen dituen kasuen arabera.

Gipuzkoako Foru Aldundia

ITZULPENA

Ojalá con el tiempo
sólo quede lo bueno, **que** los años
arrasen la memoria de los días
de miseria y **que** el viento,
igual que se llevó nuestras promesas,
se lleve las palabras alevosas
con que nos golpeamos
hasta hacernos sangrar.
Que el corazón descanse y **que** la lluvia
borre la última huella
de la última batalla.

José Fernández de la Sota

***Ea** denborak zeozer hobea
uzten duen, **ea** datozen urteek
oinaze egunon oroimena
garbitzen duten, **ea** haizeak
promesak eraman zituen bezala
batak bestea odoloztatu arte
jotzeko erabiltzen ditugun bitzak
eta azpikeriak eramaten dituen.
Ea bibotzak atsedean hartu abal duen,
ea ba eurriak azken batailako
azken aztarnak ezabatzen dituen*

Itzulpena: Joseba Sarrionandia

KAZETARITZA

Oraingo *Nazioaren bondarrak* hau artikulua bilduma da, **non** “XX. mendeko euskal literaturaren historizazio berri eta sintetikoa ematen den.

Felix Ibargutxi

POESIA

Extremadurako emakume txikiak
 beltzez jantzirik
 beren gona estuekin eta galtzerdi grisekin
 eta belaun zuriak agerian
 kartzelara joaten dira
 semea ikustera. Handik
 –abokatu bat ezin ordaindurik–
 jujearengana eta
 beren haurra ez dela gaiztoa,
 “badaki berorrek...
 lagunarte txarra...”,
 eta hiruzpalau aldiz itzultzen dira,
harik eta egun batean epaileak
 sumario ahantzien pilatik
 ale banaka batzuk irakurri eta
 –eskumuturra kondiziotan baldin badu–
 behin-behineko libertatea sina dezan **arte**.
 Ama txiki beltzik ez duten presoak berriz
 haiek inork ere ez ditu gogoan.
 Beraiek dira nonbait
 lagun txarrak.

Xabier Izaga

Adibide soil eta bakanak dira. Eta nahi adina luza daitezke.

Zenbait sail

Izango da, agian, testu-antolatzaileak era sistematizatuagoan ikusi nahiko lukeenik, adibide eta guzti. Ez da hori lan honen egitekoa, nahiz eta ondoren zenbait testu-antolatzaile eman sailka. Adibide solteak dira, eta egunkari (*Berria*), aldizkari (*Herria*) eta hiztegietatik (*Elbuyar hiztegia*, *Euskara batua*, *Zehazki*, *Euskal hiztegia*) hartu ditugu gehienak.

Betiere irakurle bakoitzaren esku geratzen da erreparatzea nola dagoen erabilia testu-antolatzailea adibide bakoitzean.

TESTU-MARKATZAILE EPISTEMIKOAK

Noski

Egarria asea izango du, **noski**, honezkero, goiko iturri garbian.

Egiatzko lirika da, **noski**, giza mintzoak menderatu duen gailurrik garaiena.

Jakina

Edan egin zuen eta, **jakina**, mozkortu.

Baina, **jakina**, baserriko lanak egiten ere norbaitek gelditu behar.

Eleberrian, izenak eta herriak aldatuta jarri dira, **jakina!**

Agidanean, agidanez

Lo zegoen etxea. **Agidanez**, aita ez zen esnatua.

Inguru haietara joan ziren, **agidanean**, Colon eta bere lagunak.

Horrelakoren bat egin zuten, **agidanean**.

Antza, antza denez, dirudienez

Andre horrek uste du, **antza**, baserrietan jendea erdi negarrez bizi dela.

Kironek, **antza**, sendabelarrak ere ezagutzen zituen.

Nonbait

Nonbait, neskak egin behar zuen guztia egina zegoen.

Ondo zeritzon, **nonbait**, jokotik dirua erraz irabazteari.

Hortik datorkio, **nonbait**, daraman izena.

TESTU-MARKATZAILEAK: BIRFORMULATZAILE ESPLIKATIBOAK

Hau da

Hau da, ez zuela bere inguruan eta bere garaian egiten zen euskara baliatu, eta zerbait jasoagoa eta landuagoa eraikitzen ahalegindu zela.

Otsailaren hogeian, **hau da**, duela hamabi egun.

Etanim zeritzan hilean, **hau da**, zazpigarren hilabetean egin ohi ziren jaietan, bildu ziren israeldar guztiak Salomon erregearekin.

Hots

Hots, espainiar epaile batek Ipar Euskal Herriko eremuan ere agindu dezake.

Mendekosteko zibilizazioan gaude, **hots**, gizonek maitasunaren hizke-
ra asmatzen duten zibilizazioan.

Batetik besterako jauzia ez da soilik ETArekin elkarrizketa izatea, tes-
tuinguru erabakigarri bat baizik: **hots**, elkarrizketa hori, hala nahi
gabe, paisaia politikoaren erauntsirik handiena bihurtu dela.

Alegia

Alegia, lanpostua behin-behinean dutenek bakarrik eginen dute azterketa.

Baina kontu hori, **–alegia**, esanahi aldaketaren zergatikoa– ez da funtsezkoa.

Aurkezpen horrek helburu jakina du: haren konbertsioa Jainkoaren graziaren garaipen bezala agerraraztea, **alegia**.

Hemengo ipuin eta bertsoek iturri bera dute; Graziano Gesaltzako aitona, **alegia**.

Esate baterako / errate baterako

Esate baterako, zu zara aberatsa eta ni behartsua.

Esate baterako, preso bati zerbait eman eta besteari ez, jokaera ezberdinak hartu batekin eta bestearekin aldentzen saiatzeko, kanpoarekiko komunikazioak zailtzen saiatu eta abar.

Konforme nago alde batetik, **esate baterako**, aditzean eta halako gauzetan.

Horrelako kontuak, muturreko egoeratan, martxoaren 11n **esate baterako**, lehertu egiten dira.

Lasaia nabilenez, hobeto moldatzen naiz jendearekin, eta konponduak ditut estresarekin loturiko osasun-arazoak; kolutisa, **esate baterako**.

Esaterako / erraterako

Erraterako, nire frantses mordoiloa azaltzeko, erran nion Pays Basque-koa nintzela, Frantziako euskalduna alegia.

Har dezagun, **esaterako**, neutralizazio delakoa.

ONDORIOZKO LOKAILUAK

Beraz

Beraz, entrenamenduko karga planifikatzerako orduan haurra ezin dugu heldu txikitzat hartu.

Zoriontsu izateko zoriona behar dut; eros dezadan, **beraz**, zoriona.

Infernuan nagoela uste dut, **beraz** han nago.

Bada

Bada, zaude lasai, adiskide.
Goazen, **bada**, puntuz puntu azaltzera.
Zerbaitegatik zatoz, **bada**.
Ez al dira, **bada**, biak antzeko samarrak?

Hortaz

Hortaz, zein arlotan ari garen jakin behar dugu ezertan hasi aurretik.
Ideiak, **hortaz**, hitzen bidez sortzen dira.
Norekin hasi, **hortaz**, hizketan? Amarekin, agian?
Kanpoko zuhaitzak errazago kiskaltzen dira; **hortaz** behin eta berriz su hartuko dute.
Ez dagoela garbi? Zer dago garbi, **hortaz**.

Orduan

Nirekin ezetz diozu? **Orduan**, zure anaiarekin joan beharko duzu.
Arduraduna ez da etorri. **Orduan...** geuk egingo dugu banaketa.
Zergatik eta zertarako idazten da, **orduan**, euskaraz gaur egun?
Prest zaudete denak? Bagoaz **orduan**.

Honenbestez, horrenbestez, hainbestez

Eta, **honenbestez**, hementxe amaitzen dira elkarri esan beharreko guztiak!
Irakaskuntzaren kalitateaz ere hitz egiten da, zorionez, eta ikasteko tresnen kalitateaz ere bai, **horrenbestez**.
Azken urteotako datuak zein diren ikusi arte erabakirik ez hartzea eskatu da. **Horrenbestez**, hurrengo bilerarako utzi da eztabaidagai hau.
Hainbestez, elorriar semeak bereak eta bi ikusi behar izan zituen mendizoko batetik bestera, gordelekuz gordeleku ibiliz, pertsegitzai-leetarik ihesi.

Halatan, hala

Apurту eginen litzateke, **halatan**, maskulinoa normala dela esan eta emakumeen egintzak parametro horren arabera aztertzen dituen ikusmoldetik abiatzen den joera androzentrikoa.

Hala, ez da berdin nobela diktadura-garaian idaztea eta demokrazian idaztea.

Hala, *Obabakoak*-en indarra honetan datza: erabiltzen dituen eredu aurremoderno hauek berriro modernitatearen amaia adierazteko azaltzen duten gaitasunean.

Halako eskaintzaren aurrean ezin nezakeen ezezkoa eman. Nire ametsak betetzeko ordua heldua zela uste nuen. **Hala**, modelo lanean hasi nintzen.

Harik eta...

Hiru urtez argitaratu zen, **harik eta** 1899ko udazkenean gobernadore zibilak gaztelania sartzeko agindua eman **arte**.

Ugalde aitarekin bildu zen Donibane Garazin, **harik eta** aitak 1939an Venezuelako itsasontzia hartu zuen **arte**.

Denbora pasa ahala, Museoa handituz joan zen **harik eta** orain dena bihurtu **arte**, hau da, arkitektura-estilo desberdina duten hiru eraikinek osatutako multzoa.

Noiz eta...

Oihuka hasi ziren, **noiz eta** eskua luza ziezaieketen lagun bakarrak alde eginak zirenean.

Non eta...

Gaurko *Berrian* Josu Naberan idazleak sinatutako artikulua bat argitaratu da, **non eta** "Gogoeta" atalean, euskararen jatorriaren gaia aztertzen den.

Dantza honetaz zeresanik ez daukat, **non eta** tokiren batean era txarrean dantzatzen ez den.

Gune seinalatuetan erreserbatutako ordu-tarteak gorabehera, zama-lanak ezingo dira 8:00ak baino lehen hasi, ezta 20:00etatik aurrera jarraitu ere, **non eta** horretarako baimena ez duten, salbuespenezko arrazoiengatik.

ERABILIZ

Baina, azken batean, norberak erabiliz ikasiko du testu-antolatzaileak era estrategikoan erabiltzen: idatziz, probak eginez, idatziak berrirakurrituz eta birmoldatuz...

Hemen, dena den –ezin baitugu norberaren prozesu hori azaldu–, bestek idatzitako testuak nola hobe daitezkeen azalduko dugu: lehen puntuan, lau pasarte egokituz; bigarrenean, artikuluko oso bat.

Lau pasarte

Munduko enpresarik handienetako bateko bulegari izan zenean bizi izan zuen amets gaiztoa kontatzen du nobela honetan Amélie Nothombek.

*Amélie Nothombek nobela honetan kontatzen du **zer-nolako** amets gaiztoa bizi izan zuen bulegari izan zenean munduko enpresarik handienetako batean.*

Mendebaldekoa eta emakumea izatearen desabantailak ederki ezagutzeko aukera izan zuen, nonbait, egileak Yumimoto enpresa japoniarrean: lan burugabeak, agindu txoroak, umilazio negargarriak, eginbehar ernegagarri, itsusi eta eldarniozkoak.

*Egileak, **nonbait**, Mendebaldekoa eta emakumea izatearen desabantailak ederki ezagutzeko aukera izan zuen Yumimoto enpresa japoniarrean: lan burugabeak, agindu txoroak, umilazio negargarriak, eginbehar ernegagarri, itsusi eta eldarniozkoak*

Igela Argitaletxea

Zer-nolako

Kontuz erlatibozkoekin. Lehen esaldian dugu bat: “bizi izan zuen amets gaiztoa”. Erreferentea (“amets gaiztoa”) atzean joateak zaildu egiten du irakurketa.

Kasu honetan, behintzat, badago zailtasun hori saihesterik, **zer-nolako** forma erabiliz:

Munduko enpresarik handienetako bateko bulegari izan zenean **zer-nolako** amets gaiztoa bizi izan zuen kontatzen du nobela hone-tan Amélie Nothombek.

Are gehiago: **zer-nolako** horri esker, gehiago ere hobe daiteke esaldia, osagaiak SAO ordenan moldatuz.

Nonbait

Berez (gramatikaz), zenbait testu-antolatzaile —esaterako, **nonbait**—berdin joan daiteke esaldiaren hasieran, erdialdean edo amaieran.

Ikuspegi testualetik, ordea, ez da berdin. Izan ere, iragartzea da testu-antolatzaileen egiteko bat: ondoren zer datorren iragartzea. Horregatik, ikuspegi honetatik, zenbat eta aurrerago antolatzailea, orduan eta hobeto.

Hemen, **nonbait** horrekin batera, subjektua ere aurreratu dugu; baina ordena aldatuz: lehenik subjektua eta ondoren antolatzailea. Horrela, markatua geratzen da subjektuaren eta predikatuaren arteko pausaldia. (Bide batez: egiteko hau ere bete dezake testu-antolatzaileak, egoki erabiliz gero.)

* * *

Frantziako Tourra hasteko sei aste luze geratzen direla jakinarazi dute Euskaltel-Euskadi taldeko kirol arduradunek egutegiko proba ezagunena zein txirrindularik korrituko duten. Ez da ohikoa bederatziko taldea hainbesteko tartearekin ezagutaraztea, baina egin dutenerako, gauzak garbi dituztela, xehetasun denak ondo lotuta dituztela esan nahi du. Eta hori berri ona da.

Andoni Urbistondo

Nabiz eta Frantziako Tourra basteko sei aste luze geratzen diren, Euskaltel-Euskadi taldeko kirol-arduradunek jakinarazi dute zein txirrindularik korrituko duten egutegiko proba ezagunena. Normalean, ez da horren goiz ezagutarazten bederatziko taldea; baina, egin dutenerako, seinale gauzak garbi dituztela, xehetasun denak ondo lotuta. Eta hori berri ona da.

Nahiz eta

Lehen esaldian, ez dago garbi zer jakinarazi duten kirol-arduradunek: “sei aste luze geratzen direla” ala “zein txirrindularik korrituko duten”. Lehen momentuan, badirudi lehenengoa dela.

Esaldiak, gramatikaz, ez du inolako aitzakiarik. Are gehiago: egoki jar-tzen du enfasia “sei aste luze geratzen direla” horretan. Ondoren da-toz arazoak.

Arazoak saihesten hasteko, oso ondo dator **nahiz eta** antolatzailea erabiltzea; izan ere, hasieratik esaten du nola irakurri esaldia eta, gai-nera, egoki adierazten du enfasia.

Baina horrela jokatzuz, aldatu egiten dugu **jakinarazi dute** aditzaren ira-kurketa (doinua eta esanahi-ñabardura). Horrek bideratzen digu hurren-go aldaketa.

Jakinarazi dute

Ondo datorkigu aditz honen irakurketa zertxobait aldatu izana. Horrela, aurretik jar diezaiokegu subjektua: “Euskaltel-Euskadi talde-ko kirol-arduradunek”.

Zein [...] korrituko duten

Korrituko duten aditza amaieran egoteak zaildu egiten du esaldiaren irakurketa. Egokiago dago, noski, **jakinarazi dute** aditzaren ondoan. Eta, hain zuzen, horraino aurreratzeko aukera ematen du **zein** galde-tzaileak.

Normalean

Hobe daiteke bigarren esaldiaren lehen zatia ere: “ez da ohikoa bede-ratziko taldea hainbesteko tartearekin ezagutaraztea”. Izan ere, elka-rrengandik urrunegi daude **ez da** eta **ezagutaraztea**.

Konponbide bat: “ez da ohikoa hainbesteko tartearekin ezagutaraztea bederatziko taldea”.

Beste konponbide bat (gurea): **normalean** testu-antolatzailea erabil-tzea.

Seinale

Bigarren esaldian, amaieran dago **esan nahi du** aditza: berriro ere urru-tiegi.

Konponbide bat: **seinale** antolatzailea erabiltzea horren ordeztan eta esal-di zatiaren hasieran.

El éxito de las regatas de traineras de la Concha depende, en parte, del cumplimiento de las normas que garanticen las buenas condiciones del campo de regateo. Con este propósito el Centro de Atracción y Turismo y la Federación Guipuzcoana de Remo dictan las siguientes instrucciones.

Kontxako Arraun Lehiaketak, arraunketa eremua egoera egokian mantentzeko ezartzen diren arauak betetzen diren ala ez, izango du arrakasta. Hori dela eta Kultur eta Turismo Ekintzetxeak eta Gipuzkoako Arraunlarien Federakuntzak ondoko arau hauek ezagutzera ematen ditu.

El Diario Vasco

Iragarki elebidun honetan, euskal testua (itzulpena) bizpahirutan irakurri behar da ulertzeko. Izan ere: 1) itzultzaileak ez du mintzagaia kontuan izan (*arrakasta* da mintzagaia —el éxito—; eta ez *lehiaketa*), 2) ondorioz, mintzagaia esaldiaren amaieran ipini du, eta 3) tartekia luzeegia da.

Kontxako Arraun Lehiaketak, arraunketa eremua egoera egokian mantentzeko ezartzen diren arauak betetzen diren ala ez, izango du arrakasta. Hori dela eta Kultur eta Turismo Ekintzetxeak eta Gipuzkoako Arraunlarien Federakuntzak ondoko arau hauek ezagutzera ematen ditu.

*Kontxako estropaden arrakasta, **besteak beste**, ipinitako arauak betetzean dago; izan ere, arraunketa-eremua zaintzeko jartzen dituzte Kultur eta Turismo Ekintzetxeak eta Gipuzkoako Arraunlarien Federakuntzak.*

* * *

Norbaitek

Foru-lege zibilak liburuan, gaztelaniazko testuak euskaratzean, etengabe erabiltzen dira testu-antolatzaileak era estrategikoan. Bikain erabili ere. Esaterako, honela dio Nafarroako Foru Berriaren 593. legeak (ASKOREN ARTEAN: 483):

Quien compra con pacto de retro una cosa dada en arrendamiento, en tanto no adquiera definitivamente la propiedad, no podrá resolver el contrato de arrendamiento.

Norbaitek atzera-eskuratzeke itunarekin erosten badu errentan emandako gauza, ezin izanen du, jabetza behin betiko eskuratzen ez duen bitartean, errentamendu-kontratua suntsiarazi.

Zein egoki itzultzen duen euskarazko **norbaitek** horrek erdal **quien!**
Eta zein egoki dagoen buru-buruan!

Lehenago, 16. legeak dio (ASKOREN ARTEAN: 205):

La condición foral navarra de una persona somete a ésta al Derecho Civil y a las disposiciones administrativas y fiscales de Navarra.

Norbaitek Nafarroako forudunaren izaera baldin badu, pertsona hori Nafarroako zuzenbide zibilaren menpe eta bertako administrazio- nabiz zerga-xedapenen menpe geratuko da.

Antzeko jokabideaz hobe daiteke, esaterako, Eusko Treneko bagoietan irakurtzen den oharraren euskal ordaina:

Garraio titulurik gabe edo baliorik gabeko tituluarekin bidaiatuz gero 30,05 euroko isuna ordaindu behar-ko da.

Norbaitek bidaiatzen badu garraio-titulu- lurik gabe edo baliorik gabeko tituluarekin, 30,05 euroko isuna ordaindu beharko du.

Izan ere, honela dio jatorrizkoak, **-z gero** testu-antolatzailea oso atze- an duela:

Viajar sin título de transporte o con un título no válido será sancionado con una multa de 30,05 euros.

Garraio titulurik gabe edo baliorik gabeko tituluarekin bidaiatuz gero 30,05 euroko isuna ordaindu beharko da.

Artikulu bat: “Jainko txikia”

Orain ikusiko dugu nola egoki daitekeen testu oso bat, testu-antol- atzaileak era estrategikoan erabiliz. Horretarako, artikulu beraren bi bertsio aztertuko ditugu: jatorrizkoa (argitaratu zena) eta egokitua (Rose, 1991).

Egokitzaileak artikulua ez zuen egokitu, berez, testu-antolatzaileen erabi- lera estrategikoa adibidez hornitzeko. Agian, horregatik, adibideak ez dira batzuetan hain nabarmenak. Alde horretatik galdutakoa, ordea, beste aldetik irabazten dugu. Adibideak, naturalagoak eta aberatsagoak gerta tzen dira horrela. Egokitzaileak testuaren gordinagatik egokitu zuen artikulua, eta jato- rrizkoaren (frantsesaren) edukiarekiko leialtasun handiagoa lortu nahian. Ezinbesteko laguntza izan zuen, dena den, euskaraz argitaratutako bertsioa.

Hemen, bi bertzioak errespetatu ditugu funtsean, baina ortografia gaurkotuz. Bestalde, zenbait hitz nabarmendu ditugu: bi bertzioetan, **letrakera lodian**, testu-antolatzaile esanguratsuenak, eta **letrakera lodian azpimarratuta**, gero iruzkinduko ditugunak; eta jatorrizko bertzioan, azpimarra soilez, testu egokitan antolatzaile bihurtuak.

JAINKO TXIKIA

Maitegia gerta al daiteke haurra?

1. Gaizki maitaturiko haurrak aipatzen direnean, sarri etorri ohi da gogora nahiko maitea ez den bat, are bat ere maitatua ez den bat, sekula ez **ordea** maitatuegia den bat!
2. Eta pozgarritzat jotzen da **gaur** gizarteko zenbait sailetan, haurra helduaren interesgune bihurtu delako; **baina** oraindik finkatzeko dago harreman mota berri hori. Gure garaikideei begiratuz, ikusten da haurra sarri jainko berri ukiezinezko bihurtu dela, izaki sakratua, denek bere babeslekuan gorde nahi dutena, munduko erasoetatik urrun.
3. “Haurra kontutan hartu” izan ordez “hura bizitzako erdigune bihurtu” bilakatzen da orduan. Zenbat gurasok ez du aitortzen, munduko kontzientziarik onenaz bestalde, beren haurra dela “guztia beraientzat”, guraso bezala duten egitekoa guztiz bestelakoa izan beharko zuke**enean**: beraiek izan behar dute erakarpen gunea beren haurrentzat.

JAINKO TXIKIA

Maitegia gerta al daiteke haurra?

1. Gaizki maitatutako haurrak aipatzean, gutxiegi maitatuak etortzen zaizkigu gogora, **baina** ez gehiegi maitatuak.
2. Pozgarritzat jotzen da, **gaur**, haurra helduaren interesgune bihurtu izana gizarteko zenbait sailetan; **baina** oraindik zehaztu gabe dago harreman-modu berri horren zer-nolakoa. Gure garaikideei behatzean, ikusten da **nola** haurra sarri bihurtu den jainko berri ukiezin, izaki sakratu, bakoi-tzak bere txokoan babestu nahi duena, munduko erasoetatik urrun.
3. “Haurra kontuan hartu”, orduan, “haurra bizitzako erdigune egin” bihurtzen da. Guraso askok aitortzen dute, gauzarik naturalena balitz bezala, beren haurra dela “dena berentzat”, **noiz eta** gurasoen egitekoak guztiz bestelakoa izan beharko luke**enean**: beraiek izan haurraren erakarpen-gunea.

4. Haurra, desiratua **denean**, sarri gurasoen ni ideal bilakatuko da: hutsune bat betetzen du, bikotearen garaipen gorena da. **Eta** nork egingo dio aurre jainko txiki bati? Haurra jainkoen mailara jasotzean, ez zaio ezer ukatzen, **eta** gurasoak prest egongo dira beren buruak hilduratzeko haurrak hildurarik izan ez dezan. Guraso askok lanbidea bera edo etxea aldatzen dute, edo are dibortziatu egingo dira, haurraren ustezko “ongizatea dela-eta”. Ordainetan, **noski**, berarengan ipini den itxaropen izugarriari erantzun beharrean izango da haurra.
5. Haurrari erantzuteko prest egoteak **sarri** mendekotasun moduko bat ezkututzen du, bertan gurasoen neurosia azaltzen delarik, baina kultur aldetik dagoen adostasunak eta merkataritzaren presioak joera hori indartzen dutenez oso zaila da azalerarazten.
6. Gure hiri modernoetan, parkeak, autobusak, eskolako inguruak, jate-txeak kultu berri hau aztertzeke leku apartekoak dira. Alde guztietan errepikatzen da lelo bera: haurra babestu. **Bestela esanda**: bere ekimenak ito eta bere nagikeria indartu.
4. *Haurra, desiratua denean, gurasoek idealizatu egiten dute sarritan: hutsune bat betetzen du, bikotearen garaipenik gorena da. **Eta** nork esan ezetz jainko txikiari? Haurra jainko mailan ipinita, ez diote ezer ukatzen, **eta** gurasoek nabiago dute beren burua zapuztu, haurra zapuztuta ikustea baino. Askok lanbidea aldatzen dute, edo etxea; eta dibortziatzera ere iristen dira, haurraren ustezko “mesedetan”. Ordainetan, haurrak gai izan beharko du, **jakina**, berarengan ipinitako itxaropen izugarriari erantzuteko.*
5. *Haurraren gain-gainean egotea, **askotan**, gurasoen neurosia ezkututzen duen murrontza da. **Eta** are ezkutuago geratzen da, **gainera**, giro kulturalaren eraginez eta merkataritzaren presioagatik.*
6. *Gure hiri modernoetako bibotzean, parkeak, autobusak, eskola-inguruak, jate-txeak dira kultu berri borren aparteko behatoki. Alde guztietan errepikatzen da lelo bera: haurra babestu. **Bestela esanda**: bere ekimenak ito, bere nagikeria indartu.*

7. Bi ondorio nahiko nola halako dituen bi postulatutan oinarritzen da jokamolde hau. Alde batetik, gizonak ahalik eta neke gutxienak pairatu behar ditu armonikoki garatzeko, armonia kasu honetan elkar osatzen duten indarren arteko oreka baino gehiago istilu gabezia bezala definitzen delarik; bestetik, haurraren egiazko premia berak azaltzen duenera egokitzen da eta hau bere aldetik gurasoek premia horretaz duten iritziarekin bat egiten da.
8. **Bestelako hitzetan**, haurrak, mundura etortzearekin batera, jakingo luke bere senak bultzaturik, zer den on beretzat. Harrigarria kontzientzia oro senaren azalpen soilera murrizte hau. Nolabait, azken mendeko moral victoriarraren gehiegikerien ordaina da.
9. Moral bitxi honek psikoanaliaren ekarpenak ukatzen ditu —handik elikatuz, hala ere—: psikoanaliak garbi azpimarratu du pozak eta nekeak txandaka joan behar dutela haurraren munduarekin dituen harremanetan.
7. ***Jokaera horren oinarrian**, bi uste daude, ondorio zalantzarriak dituztenak. Batetik, gizakiak abalik eta neke gutxien jasan behar du era harmonikoan hazteko; eta harmonia, kasu honetan, gehiago da gatazkarik eza, indar osagarrien arteko oreka baino. Bestetik, haurraren egiazko premia, berriz, bat dator berak azaltzen duenarekin eta hau ere bat dator gurasoek premiaz duten ideiarekin.*
8. ***Beraz**, haurrak, jaio **orduko**, senaz jakingo luke zer den on beretzat. Harrigarria: senaren azalpen butsera murrizten da kontzientzia. Nolabait, azken mendeko moral victoriarraren gehiegikerien ordaina da.*
9. *Moral bitxi bonek ukatu egiten ditu psikoanaliaren ekarpenak, nabiz eta bertatik elikatu. Izan ere, psikoanalisarentzat garrantzizkoa da pozak eta nekeak txandatzea, haurrak munduarekin dituen harremanetan.*

10. Frustrazio modu bat baliozkoa izan daiteke, **baldin** horrek giza-kia muga baten aurrean jarri eta ezintasun hori bereganatzeko gai izango den egitura psikiko bat garatzeko aukera ematen **badio**, **hurrengoan** gisa bereko egoerei hobeto aurre egin ahal **diezaien**. Frustrazio bat gainditzeko gaitasun hau da gizontxoari bere autonomia **astiro** eraikitze bide ematen diona.
10. Frustrazio jakin bat onuragarria izan daiteke, **baldin eta** gizakiari aukera ematen **badio** egitura psikikoa garatu eta ezintasun bori gainditzeko **eta**, **ondoren**, gero eta hobeto aurre egiteko antzeko egoerei. Frustrazio bat gainditzeko gaitasunari esker egingo da une koxkorra, **astiro-astiro**, bere autonomiaren jabe.
11. Baina nola bultzatu dinamika hau, inguruak etengabe adierazten **badu** haurra beti asebate behar dela?
11. Baina nola bideratu dinamika bori, **non eta** haurra etengabe asebetetzera bultzatzen duen giroan?
12. Helduaren zeregina, **hasteko**, haurrari heldutasunerako bidean laguntzea da, **hau da** errealitateari aurre egiten, ez hari ihes egiten laguntzea. **Beraz**, borondaterik onenez, haurraren eta egiazko bizitzaren artean horma bat altxatzen **badute**, haurrari egiazko esperientzia izan dezan eta erreferentzia puntu egokiak finka ditzan eragozten diote gurasoek.
12. Helduaren zeregina, **leben-lebenik**, haurrari laguntzea da heldu biburtzen; **hau da**, laguntzea errealitateari aurre egiten **—eta ez bizkar ematen—**. Gurasoek, hobe beharrez, hesia jartzen dutenean haurraren eta errealitatearen artean, benetako esperientzia eragozten diote eta erreferentzia egokiak finkatzeko aukerak ukatzen dizkiote.
13. Haurrarekin hitz egitea beharrezkoa **badu**, zenbait pertsona helduren argibide sistematikoek eta beren pazientzia mugagabeak **—haurraren tontokeria** batzuen aurrean, **adibidez—** errealitatea bere alderdi guztietan sumatzeko gaitasuna ken diezaiokete behar bada haurrari, bizitza bere okerren aurrean beti onbera izango dela erakutsiz **bezala**.
13. **Nahiz eta** haurrarekin hitz egitea beharrezkoa izan, zenbait helduren argibide sistematikoak eta pazientzia neurrigabea, ordea **—adibidez**, haurraren txorakeria batzuen aurrean—, kaltegarriak izan daitezke haurrarentzat, murriztu egiten baitiote errealitatea osorik atzemateko gaitasuna, **eta** sinestarazi bizitza beti onbera izango dela bere hutsegiteekin.

14. **Era berean**, munduarekiko harreman sentsuala kenduko dio, harreman erabat zerebral baten mesedetan. **Adibidez**: zerbait ukituz gero min ematen duela jakitea, eta ukitu eta sentitzea gauza bera al dira? Haurrak berez bilatzen ditu ezin dituen gauzak, bera kokatzeko eta nortasuna eraikitze bide emango diotenak. Aurkitzen **ez baditu**, orain ez bada geroago, hutsune horrek sortzen dion antsiaren aurrean jokabideren bat hartuko du.
15. Gure haurrek ez dute ikasten gehiago mundura jaiotzen, **eta** adoleszentiako aldaketa jasanezinezko trantze bezala azaltzen zaie. Sarri depresio sakon bat, zინismoz eta nihilismoz jantzia, agertuko da une horretan, haurrak huts hori, gabezia hori azaleratuko balu bezala: ezerk ez du ukitu, ez du ezer ukitu, beraz ez dio ezerk ukitzen!
16. Nerabe honek ezintasunik txikiena bortizkeria bezala sentituko du, bizitzaren indar bizia jasanezinezko bihurtu zaio. Bere gabeziak jota bizi da, bera egituratu eta ez inguratu soilik egingo lukeen maitasun baten egarri, egiazkora eta honek duen gogortasunera iristeko bide eskaintzen dioten aukerei ihes eginez **ordea** beti ere. Oldarraren eta malenkoniaren erdian harrapaturik, sufritzen dagoen izakia ezin da bere kabuz abiatu bizitzara.
14. **Horrela**, eragotzi egiten diote munduarekin barreman sentsuala izatea ere, harreman erabat zerebralaren mesedetan. **Adibidez**: berdin al da jakitea zerbaitek, ukituz gero, min ematen duela, eta ukitu eta mina sentitzea? Haurra, **berez**, erresistentzien bila dabil, bere burua kokatzeko eta garatzeko. Aurkitu **ezean**, hutsune horrek sortutako antsiaren aurka erreakzionatuko du bihar edo etzi.
15. Gure haurrek ez dute ikasten mundura “jaiotzen”, **eta** jasanezina egiten zaie adoleszentiako aldaketa. **Orduan**, depresio sakon bat sortzen zaie askotan; eta horri, gainera, halako jarrera zinikoa eta nihilista eransten zaio, lehen bizi izandako gabezia azaltzen ariko balitz bezala: ezer ez du ukitu, ezerk ez du hunkitu, dena zaio biguingarri!
16. Nerabe bonentzat, erresistentziarik txikiena ere bortizkeria da; bizitzaren indar bizia, jasanezina. Gabeziak jota bizi da, eta egituratzeko —eta ez soilik babesteko— aukera emango dion maitasunaren egarri; atzera eginez, **ordea**, errealitatera eta honen basakeriara iristeko aukeren aurrean. Agresibitatearen eta malenkoniaren erdian harrapaturik, sufritzen dagoen izakiak ezin du bizitzan berak bakarrik aurrera egin.

17. **Hala**, gizarte laguntzaileak, medikuak, psikologoak edo psikoanalistak gero eta sarriago egin behar diote aurre desespero mota berri bati. Haurraren arazoak ez dira sortu haurtzaro zoritzarreko batetik, **bai aldiz** haurtzaro *mimatu* batetik.

17. **Hala**, *gizarte-laguntzaileak, medikuak, psikologoak edo psikoanalistak etsipen mota berri batekin egiten dute topo gero eta gehiagotan. Haurraren arazoan sorburua ez dago zoritzarreko haurtzaro batean, **baizik eta**, alderantziz, haurtzaro *mimatu* batean.*

Azken batean, bi estrategia sail erabili zituen egokitzailak: aurrerakarga arintzekoak eta pausaldiak markatzekoak. Dena den, batzuetan, kontua ez da mugatzen testu-antolatzaileetara. Hauek erabiltzean (lekuz aldatuz, ordezkatzuz, berriak tartekatuz...) aldatu egin beharko dira testuko beste osagai batzuk ere; puntuazio-markak ere bai, agian. Hain da estua osagaien arteko elkarre-
ragina. Horregatik, tarteka, testu-antolatzaile batekin ez ezik, birekin ere jokatu beharko da.

1. ATZERAKARGA ARINTZEKO ESTRATEGIAK

Lau estrategia bereiz ditzakegu. Baina beste batzuk ere aipatuko ditugu lehenengoaren baitan.

Bigarren kapituluan ikusi dugunez, testu zatiak lotzea eta iragartzea da testu-antolatzailearen egitekoa. Iragartzeko, ordea, iragarritakoaren aurretik joan beharko du. Ikuspegi gramatikal hutsetik, berdin izango da hasieran edo amaieran ipintzea; ez, ordea, ikuspegi testualetik. Testu-antolatzailea (oso) atzean joateak zaildu egiten du ulertzea. Horra iritsi arte, irakurleak (edo entzuleak) ez daki nola ulertu testua. Antolatzaileak ez du iragarle-egitekoa betetzen. Horregatik (ere) zail egiten da pasarte lehen irakurraldian ulertzea.

TESTU-ANTOLATZAILEA, AHAL DEN NEURRIAN, LOTZEN DITUEN ZATIEN TARTEAN ERABILI, EDO AHALIK AURREEN

Batzuetan, nahikoa da antolatzailea lekuz aldatzea (horretarako aukera ematen badu, jakina):

haurraren *tontokeria* batzuen aurrean, **adibidez** (13. lerrokada)

adibidez, *haurraren txorakeria batzuen aurrean*

Bere gabeziak jota bizi da, bera egituratu eta ez inguratu soilik egingo lukeen maitasun baten egarri, egiakora eta honek duen gogortasunera iristeko bide eskaintzen dioten aukerei ihes eginez **ordea** beti ere. (16)

*Gabeziak jota bizi da, eta egituratzeko —eta ez soilik babesteko— aukera emango dion maitasunaren egarri; atzera eginez, **ordea**, errealitate-ra eta honen basakeriara iristeko aukeren aurrean.*

Beste batzuetan, alabaina (testu-antolatzaileak horretarako aukerarik ematen ez duenean), bestelako estrategiak erabili beharko dira. Esaterako, berez aurrean joaten den (edo joan daitekeen) sinonimoaz ordezkatu:

Moral bitxi honek psikoanaliaren ekarpenak ukatzen ditu –handik elikatuz, **hala ere**–: (9)

Haurrarekin hitz egitea beharrezkoa **bada [ere]**... (13)

*Moral bitxi honek ukatu egiten ditu psikoanaliaren ekarpenak, **nabiz eta** bertatik elikatu.*

***Nabiz eta** haurrarekin hitz egitea beharrezkoa izan...*

Edo, nahiz eta sinonimoa izan ez, antzeko balioa-edo duen testu-antolatzaileaz ordezkatu, egin beharreko gainerako aldaketak eginez:

Gure garaikideei begiratzuz, ikusten da haurra sarri jainko berri ukiezinezko bihurtu **dela** (2)

harmonia kasu honetan elkar osatzen duten indarren arteko oreka baino gehiago istilu gabezia bezala definitzen **delarik**: (7)

hurrengoan gisa bereko egoerei hobeto aurre egin ahal **diezaien**. (10)

Baina nola bultzatu dinamika hau, inguruak etengabe adierazten **badu** haurra beti asebate behar dela? (11)

bizitza bere okerren aurrean beti onbera izango dela erakutsiz **bezala**. (13)

*Gure garaikideei bebatzean, ikusten da **nola** haurra sarri bihurtu den jainko berri ukiezin*

***eta** harmonia, kasu honetan, gehiago da gatazkarik eza, indar osagarrien arteko oreka baino.*

***eta**, ondoren, gero **eta** hobeto aurre egiteko antzeko egoerei.*

*Baina nola bideratu dinamika hori, **non eta** haurra etengabe asebetetzera bultzatzen duen giroan?*

***eta** sinestarazi bizitza beti onbera izango dela bere hutsegitekin.*

* * *

IRAGARLEZ HORNITU HALA HORNI DAITEKEEN TESTU-ANTOLATZAILEA

Ikusi dugunez, testu-antolatzaile batzuek (*ba-* baldintzazkoak, *arte* denborazkoak, zenbait superlatibok, *ere* lokailuak...) iragarleren (indartzailerren) bat eraman dezakete aurretik: *baldin (eta)*, *barik (eta)*, *ahalik (eta)*, *baita, ezta...*

Horietako bat bazegoen jatorrizko bertsioan; eta utzi egin du egokitzaileak, nahiz eta *badio* baldintzazkoa aurreratu, besteak beste.

Frustrazio modu bat baliozkoa izan daiteke, **baldin** horrek gizakia muga baten aurrean jarri eta ezintasun hori bereganatzeko gai izango den egitura psikiko bat garatzeko aukera ematen **badio**, hurrengoan gisa bereko egoerei hobeto aurre egin ahal diezaien. (10)

*Frustrazio jakin bat onuragarria izan daiteke, **baldin eta** gizakiari aukera ematen **badio** egitura psikikoa garatu eta ezintasun hori gainditzeko eta, ondoren, gero eta hobeto aurre egiteko antzeko egoerei.*

Beste pasarte batean, ordea, ez zegoen iragarlerik, eta bat tartekatu du egoitzaileak; horrela, gainera, indartu egin du testuaren argudio-kutsua:

Zenbat gurasok ez du aitortzen, munduko kontzientziarik onenaz bestalde, beren haurra dela “guztia beraieneztat”, guraso bezala duten egitekoa guztiz bestelakoa izan beharko **zukeenean**: beraiek izan behar dute erakarpenean beren haurrentzat. (3)

*Guraso askok aitortzen dute, gauzarik naturalena balitz bezala, beren haurra dela “dena berentzat”, **noiz eta** gurasoen egitekoak guztiz bestelakoa izan beharko **lukeenean**: beraiek izan haurraren erakarpenean.*

* * *

TARTEKI (TESTU-MARKATZAILE) BIHURTU, ETA AURRERATU, BEREZ EZ DENA

Batzuetan, sintagma jakin bat, nahiz eta berez tarteki (testu-markatzaile) izan ez, tarteki bihur daiteke esaldiaren esanahia funtsean aldatu gabe. Eta, hala, aurreratzeko aukera ere ematen du, behar izanez gero.

hurrengoan gisa bereko egoerei hobeto aurre egin ahal diezaien. (10)

*eta, **ondoren**, gero eta hobeto aurre egiteko antzeko egoerei.*

Haurrak **berez** bilatzen ditu ezin dituen gauzak. (14)

*Haurra, **berez**, erresistentzien bila dabil.*

Sarri depresio sakon bat [...] agertuko da **une horretan**. (15)

***Orduan**, depresio sakon bat sortzen zaie askotan.*

* * *

TESTU-ANTOLATZAILEA SARTU

Testu-antolatzaile berriak ere sar daitezke testuan.

Moral bitxi honek psikoanaliaren ekarpenak ukatzen ditu —handik elikatuz, hala ere—: psikoanaliak garbi azpimarratu du pozak eta nekeak txandaka joan behar dutela haurren munduarekin dituen harremanetan. (9)

*Moral bitxi honek ukatu egiten ditu psikoanaliaren ekarpenak, nabiz eta bertatik elikatu. **Izan ere**, psikoanaliarentzat garrantzizkoa da pozak eta nekeak txandatzea, haurrak munduarekin dituen barremanetan.*

Helduaren zeregina, hasteko, haurrari heldutasunerako bidean laguntzea da, **hau da** errealitateari aurre egiten, ez hari ihes egiten laguntzea. (12)

*Helduaren zeregina, leben-lebenik, haurrari laguntzea da heldu bihurtzen; **hau da**, laguntzea errealitateari aurre egiten —eta ez bizkar ematen—.*

2. PAUSALDIAK MARKATZEKO ESTRATEGIAK

Hiru estrategia bereiz ditzakegu. Hirurak, ikusi berri ditugun horien antzekoak. Dena den, orain, ahalik eta aurreen ez baina, pausaldien tokian daude testu-markatzaileak: subjektuaren eta predikatuaren artean edo aditzaren eta osagaien artean (ZUBIMENDI; ESNAL, 1993: 219).

TESTU-MARKATZAILEA KOKAGUNEZ MUGITU

Ordainetan, **noski**, berarengan ipini den itzaropen izugarriari erantzun beharrean izango da haurra. (4)

*Ordainetan, haurrak gai izan beharko du, **jakina**, berarengan ipinitako itzaropen izugarriari erantzuteko.*

TARTEKI (TESTU-MARKATZAILE) BIHURTU, ETA KOKAGUNE EGOKIRA ERAMAN (BEHAR IZANEZ GERO), BEREZ EZ DENA

Eta pozgarriztat jotzen da **gaur** gizarteko zenbait sailetan, haurra helduaren interesgune bihurtu delako (2)

*Pozgarriztat jotzen da, **gaur**, haurra helduaren interesgune bihurtu izana gizarteko zenbait sailetan*

“Haurra kontutan hartu” izan **ordez** “hura bizitzako erdigune bihurtu” bilakatzen da **orduan**. (3)

*“Haurra kontuan hartu”, **orduan**, “haurra bizitzako erdigune egin” bihurtzen da.*

Haurrari erantzuteko prest egoteak **sarri** mendekotasun moduko bat ezkutatzen du, (5)

*Haurraren gain-gainean egotea, **askotan**, gurasoen neurosia ezkutatzen duen morrontza da.*

Bi ondorio nahiko nola halako dituen bi postulatutan **oinarritzen da** jokamolde hau. (7)

***Jokaera borren oinarrian**, bi uste daude, ondorio zalantzarriak dituztenak.*

harmonia **kasu honetan** elkar osatzen duten indarren arteko oreka baino gehiago istilu gabezia bezala definitzen delarik: (7)

*eta harmonia, **kasu honetan**, gehiago da gatazkarik eza, indar osagarrien arteko oreka baino.*

Frustrazio bat gainditzeko gaitasun hau da gizontxoari bere autonomia **astiro** eraikitze bide ematen diona. (10)

*Frustrazio bat gainditzeko gaitasunari esker egingo da ume koxkorra, **astiro-astiro**, bere autonomiaren jabe.*

Nerabe honek ezintasunik txikiena bortizkeria bezala sentituko du (16)

***Nerabe honentzat**, erresistentziarik txikiena ere bortizkeria da*

TESTU-MARKATZAILEA TARTEKATU

baina kultur aldetik dagoen adostasunak eta merkataritzaren presioak joera hori indartzen dutenez oso zaila da azalerarazten. (5)

*Eta are ezkutuago geratzen da, **gainera**, giro kulturalaren eraginez eta merkataritzaren presioagatik.*

bestetik, haurraren egiazko premia berak azaltzen duenera egokitzen da eta hau bere aldetik gurasoek premia horretaz duten iritziarekin bat egiten da. (7)

*Bestetik, haurraren egiazko premia, **berriz**, bat dator berak azaltzen duenarekin eta hau ere bat dator gurasoek premiaz duten ideiarekin.*

BIBLIOGRAFIA

- ESNAL, Pello (2002b): “Testu-antolatzaileen erabilera estrategikoa”, in *Hizpide* 51: 19-33.
- ZUBIMENDI, Joxe Ramon; ESNAL, Pello (1993): *Idazkera-liburua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- ZUBIMENDI, Joxe Ramon; ESNAL, Pello (1997): *Irakurbideak*. Oiartzun: Sendoa.

Adibideen iturriak

- ASKOREN ARTEAN (2002): *Foru-lege zibilak. Euskal Autonomia Erkidegoa. Nafarroako Foru Komunitatea*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea; Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea.
- AXULAR, Pedro (1976): *Gero*. Oñati: Jakin [seigarren argitalpena].
- BERRIA egunkaria.
- BORDA, Itxaro (1985): *Basilika*. Susa
- EL DIARIO VASCO egunkaria.
- ELHUYAR (2006): *Elbuyar hiztegia*. Usurbil: Elhuyar.
- ERKIAGA, Eusebio (2001): *Berbalauaren kulunkan. Prosa lanak*. Bilbo: Labayru Ikastegia
- ETXEBARRIA, Juan Manuel (1995): *Gorbeia inguruko Etno-Ipuin eta Esaundak*. Bilbo: Labayru Ikastegia - Bilbao Bizkaia Kutxa.
- ETXENAGUSIA, Karmelo (2003): *Euskerea nire bizitzan*. Bilbo: Labayru Ikastegia.
- ETXEPARE, Bernard (1980): *Linguae vasconum primitiae*. Bilbo: Euskaltzaiandia; Mensajero. [Edizio kritikoa, Patxi Altunak paratua.]
- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA: *Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala*.
- HERRIA astekaria.
- IBARGUTXI, Felix (2006): “Euskal literaturaren historia hau ez da behintzat neutral eta grisa izango”, in *El Diario Vasco*, 2006.10.12.
- IGELA ARGITALETXEA (2003): Kontrazala, in ELOSEGI, Joxan: *Durduraz eta dardaraz*. Iruñea: Igela.
- IZAGA, Xabier (1998): *Bart irakurtzeko gaur izkiriatura*. Zarautz: Susa.
- KIRIKIÑO (1915): *Euzkadi* egunkaria.
- KIRIKIÑO (1920): *Euzkadi* egunkaria.
- MITXELENA, Koldo (1988): *Euskal idazlan guztiak VI. Hizkuntzalaritzaz I*. Donostia: Euskal Editoreen Elkarte.
- ROSE, Anne (1991): “Jainko txikia”, in ESNAL, Pello (2002b): 31-32. [Jatorrizkoak: “Jainko txikia”, in *Unescoren Albistaria* 83: 32-33; “Le petit dieu”, in *Le Cou-*

- rrier de l'Unesco*, 1991ko urria: 32-33; “Un pequeño dios”, in *El Correo de la Unesco*, 1991ko urria: 32-33.]
- SARASOLA, Ibon (2005): *Zebazki. Gaztelania-Euskara Hiztegia*. Irun: Alberdania.
- SARASOLA, Ibon (2007): *Euskal Hiztegia*. Donostia: Elkar.
- SARRIONANDIA, Joseba (1998): “Ea ba...” [José FERNÁNDEZ DE LA SOTAREN “Ojalá” poemaren itzulpena, Eusko Jaurlaritzak argitaratua, 1998ko Eguberrietako zorian-txarteletan].
- URBISTONDO, Andoni (2004): “Zaldiak ‘kakalardoek’ kaltean”, in *Berria*, 2004.05.19: 36.
- VILLASANTE, Luis (1975): “Aitzinsolasa ”, in AXULAR, Pedro: *Gero*. Oñati: Jakin.
- ZARATE, Mikel (2004): *Haurgintza minetan*. Bilbo: Labayru Ikastegia.

**BIBLIOGRAFIA
OROKORRA**

ERREFERENTZIAK

- AGIRRE, Jesus Maria (1991): *Euskal gramatika deskriptiboa*. Bilbo: Labayru Ikastegia [bi liburuki].
- ALONSO FOURCADE, Maria Pilar (2007): “Testuratze unitateen azterketaren hurbilketa fraktala”, in PLAZAOLA, Itziar; ALONSO FOURCADE, Maria Pilar (edit.): *Testuak, diskurtsoak eta generoak*. Donostia: Erein.
- AREJITA, Adolfo (zuz.) (2001): *Bizkai euskeraren jarraibide liburua. Lebenengo pausak*. Bilbo: Labayru Ikastegia - Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa.
- AREJITA, Adolfo (zuz.) (2005): *Bizkai euskeraren jarraibide liburua. Bigarren pausak*. Bilbo: Labayru Ikastegia - Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa.
- BRONCKART, Jean-Paul (1996): *Activité langagière, textes et discours. Pour un interactionisme socio-discursif*. Lausanne - Paris: Delachaux et Niestlé. [Gaztelaniaz: *Actividad verbal, textos y discurso. Por un interaccionismo socio-discursivo*. San Sebastián de los Reyes (Madrid): Fundación Infancia y Aprendizaje. 2004.]
- CUENCA, Maria Josep (2006): *La connexió i els connectors. Perspectiva oracional i textual*. Vic: Eumo.
- ELOSEGI, Lourdes; ESNAL, Pello (2004): “Konexioa: testu-antolatzaileak”, in *Hizpide 57*: 67-80.
- ESNAL, Pello (2002a): “Testu-antolatzaileak”, in *Hizpide 50*: 25-36.
- ESNAL, Pello (2002b): “Testu-antolatzaileen erabilera estrategikoa”, in *Hizpide 51*: 19-33.
- EUSKALTZAINDIA: GRAMATIKA BATZORDEA (1990): *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak – III (Lokailuak)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- EUSKALTZAINDIA: GRAMATIKA BATZORDEA (1994): *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak – IV (Juntagailuak)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- EUSKALTZAINDIA: GRAMATIKA BATZORDEA (1999): *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak – V (Mendeko perpausak - 1)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- EUSKALTZAINDIA: GRAMATIKA BATZORDEA (2005): *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak – VI (Mendeko perpausak - 2)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- EUSKERA (1994): “I. Jagon Jardunaldiak”, in *Euskera 39*: 27-277.
- EUSKERA (1996): “II. Jagon Jardunaldiak”, in *Euskera 41*: 509-604.

- EUSKERA (1999): "IV. Jagon Jardunaldiak", in *Euskera* 44: 945-1.002".
- EUSKO JAURLARITZA: HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA (1997): *Irakasleen euskalduntzea. HE2rako Curriculumuma (4.000 eta 5.000 atalak)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia (Euskara Zebitzua: Glotodidaktika-lanak, 49).
- IVAP (2005): *IVAPeko estilo-liburua*. Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioa.
- KALTZAKORTA, Mitxel (2007): *Prosa komunikagarriago egiten. Zenbait proposamen (I)*: Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- LARRINGAN, Luis Maria (1996): *Testu-antolatzaileak bi testu motatan: testu informetiboan eta argudiapen-testuan*. Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea [dokto-re-tesia].
- LARRINGAN, Luis Maria (2007): "Testu-motak eta testu-antolatzaileak: zer lotura?", in PLAZAOLA, Itziar; ALONSO FOURCADE, Maria Pilar (edit.): *Testuak, diskurtsoak eta generoak*. Donostia: Erein.
- MARTÍN, María Antonia; PORTOLÉS, José (1999): "Los marcadores del discurso", in BOSQUE, Ignacio; DEMONTE, Violeta (dir.): *Gramática descriptiva de la Lengua Española*. Madrid: Espasa Calpe: 4.051-4.213.
- MITXELENA, Luis (1968): Txostena, in *Euskera* 13: 203-219.
- PLAZAOLA, Itziar; ALONSO FOURCADE, Maria Pilar (edit.) (2007): *Testuak, diskurtsoak eta generoak*. Donostia: Erein.
- VILLASANTE, Luis (1975): "Hitzaurre gisa", in ALTUBE, Sebero: *Erderismos*. Bilbo: Indauchu: V-XII.
- VILLASANTE, Luis (1976): "Seigarren edizioari aitzinsolasa", in AXULAR, Pedro: *Gero. Oñati: Jakin: IX-XXXIV*.
- VILLASANTE, Luis (1988): *Euskararen auziaz*. S.l, s.n. ("Luis Eleizalde" saila, 9).
- ZABALA, Igone (koord.) (1996): *Testu-loturarako baliabideak: euskara teknikoa*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- ZOCK, Michael (1992): *Arianaren Haria edo testuaren gramatikak ama-bizkuntzan nabiz bizkuntza arrotzean pentsatutakoaren antolamendu eta adierazpenaren gisa*. Donostia: HABE: Itzulpen Saila 31.
- ZUBIMENDI, Joxe Ramon; ESNAL, Pello (1993): *Idazkera-liburua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- ZUBIMENDI, Joxe Ramon; ESNAL, Pello (1997): *Irakurbideak*. Oiartzun: Sendoa.
- ZUBIRI, Ilari; ZUBIRI, Entzi (2000): *Euskal Gramatika osoa*. Bilbo: Didaktiker.

ADIBIDEEN ITURRIAK

- ALBERDI, Xabier; GARCÍA, Julio (1998): “Zein (...) bait- / - erlatiboa: Literatura-Tradizioa”, in *Linguae Fontes Vasconum XX*: 235-266.
- ARARTEKO (1991): *Kalabozoak. Ertzantzaren eta udalen atxiloketa egoitzak. Los calabozos. Centros de detención municipales y de la ertzantza*. Vitoria-Gasteiz: Ararteko - Euskal Herriko Unibertsitatea.
- ARREGI, Joxe (2004): *Nazaretoko Jesus*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- ASKOREN ARTEAN (2002): *Foru-lege zibilak. Euskal Autonomia Erkidegoa. Nafarroako Foru Komunitatea*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea; Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea.
- AXULAR, Pedro (1976): *Gero*. Oñati: Jakin [seigarren argitalpena].
- BERRIA egunkaria.
- BORDA, Itxaro (1985): *Basilika*. Susa
- EL DIARIO VASCO egunkaria.
- ELHUYAR (2006): *Elbuyar biztegia*. Usurbil: Elhuyar.
- ERKIAGA, Eusebio (2001): *Berbaluaren kulunkan. Prosa lanak*. Bilbo: Labayru Ikastegia
- ETXEBARRIA, Juan Manuel (1995): *Gorbeia inguruko Etno-Ipuin eta Esaundak*. Bilbo: Labayru Ikastegia - Bilbao Bizkaia Kutxa.
- ETXENAGUSIA, Karmelo (2003): *Euskerea nire bizitzan*. Bilbo: Labayru Ikastegia.
- ETXEPARE, Bernard (1980): *Linguae vasconum primitiae*. Bilbo: Euskaltzaindia; Mensajero. [Edizio kritikoa, Patxi Altunak paratua.]
- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA: *Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala*.
- HERRIA astekaria.
- IBARGUTXI, Felix (2006): “Euskal literaturaren historia hau ez da behintzat neutral eta grisa izango”, in *El Diario Vasco*, 2006.10.12.
- IGELA ARGITALETXEA (2003): Kontrazala, in ELOSEGI, Joxan: *Durduraz eta dardaraz*. Iruñea: Igela.
- IVAP (2005): *IVAPeko estilo-liburua*. Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioa.
- IZAGA, Xabier (1998): *Bart irakurtzeko gaur izkiriatura*. Zarautz: Susa.

- KINTANA, Xabier (2002): “Juan San Martin Ortiz de Zarateri urrezko luma”, in *Euskera* 47: 311-313.
- KIRIKIÑO (1915): *Euzkadi egunkaria*.
- KIRIKIÑO (1920): *Euzkadi egunkaria*.
- LERTXUNDI, Anjel (2002): *Zorion perfektua*. Irun: Alberdania.
- LETE, Xabier (1974): “Xabier Lizardi edo poesia gailen”, in *Xabier Lizardi, olerkari eta prosista*. Oñati: Jakin.
- MITXELENA, Koldo (1988): *Euskal idazlan guztiak VI. Hizkuntzalaritzaz I*. Donostia: Euskal Editoreen Elkarte.
- ROSE, Anne (1991): “Jainko txikia”, in ESNAL, Pello (2002b): 31-32. [Jatorrizkoak: “Jainko txikia”, in *Unescoren Albistaria* 83: 32-33; “Le petit dieu”, in *Le Courrier de l'Unesco*, 1991ko urria: 32-33; “Un pequeño dios”, in *El Correo de la Unesco*, 1991ko urria: 32-33.]
- SALABURU, Pello (1987): “Koldo Mitxelena, hizkuntzalari”, in *K. Mitxelena. Gizona eta Hizkuntza*, Egan, ale berezia (3-6): 117.
- SARASOLA, Ibon (2005): *Zebazki. Gaztelania-Euskara Hiztegia*. Irun: Alberdania.
- SARASOLA, Ibon (2007): *Euskal Hiztegia*. Donostia: Elkar.
- SARRIONANDIA, Joseba (1998): “Ea ba...” [José FERNÁNDEZ DE LA SOTAREN “Ojalá” poemaren itzulpena, Eusko Jaurlaritzak argitaratua, 1998ko Eguberrietako zorion-txarteletan].
- UNESCOREN ALBISTARIA (1998): “Afrika eta mundua”, in 110. zenb. (1998ko uztaila-abuztua-iraila): 36.
- URBISTONDO, Andoni (2004): “Zaldiak ‘kakalardoek’ kaltean”, in *Berria*, 2004.05.19: 36.
- VILLASANTE, Luis (1975): “Aitzinsolasa”, in AXULAR, Pedro: *Gero*. Oñati: Jakin.
- ZALBIDE, Mikel (2003): “Hendai-Hondarribietako biltzarrak: XX. Mendeko hizkuntza plangintzaren iturburu”, in *Euskaltzaleen Biltzarraren Mendeurrena*. Bilbo: Sabino Arana Kultur Elkargoa: 1-134.
- ZARATE, Mikel (2004): *Haurgintza minetan*. Bilbo: Labayru Ikastegia.
- ZURUTUZA, Imanol (2002): *Errautsera arteko sugarra*. Donostia: Elkarlanean.

AURKIBIDEA

Aurkezpena	7
Atarikoa	9
Oharrak	13
1. Egitasmoa	15
Euskal testugintza gaur	17
Gure egitasmoa	23
Bibliografia	24
2. Estrategiak eta testu-antolatzaileak	25
Estrategien mundua	27
Ikuspegi gramatikaletik ikuspegi komunikatibora	27
Estrategiak	28
Testu-antolatzaileak	30
Testu-antolatzaileen eremuaz jabetzen	30
Abiaburua: lokailuak	30
Lokailuak	31
Lehen saila: testu-markatzaileak	32
Testu-markatzaileak	32
Bigarren saila: juntagailuak eta menderagailuak	34
Hirugarren saila: zenbait adberbio, adberbio-esapide eta postposizio-sintagma	34
Testu-antolatzaileak, testu erreal batean: "Jainko txikia" .	34
Testu-antolatzaileen egitekoak	39
Testu-antolatzaileen erabilera estrategikoa	41
Zertarako erabili testu-antolatzaileak era estrategikoan ..	41
Zer neurritan erabil daitezkeen testu-antolatzaileak era estragikokoan	45
Bibliografia	47

3. Zenbait testu-antolatzaile, banan-banan	49
Bibliografia	64
4. Nola ikasi testu-antolatzaileak era estrategikoan erabiltzen ...	65
Irakurriz eta entzunez	67
Adibidez	67
Zenbait sail	71
Erabiliz	76
Lau pasarte	76
Artikulu bat: “Jainko txikia”	81
Bibliografia	92
Bibliografia orokorra	95
Erreferentziak	97
Adibideen iturriak	99

